



ANTONIO ZAVALA

JAN-EDANAREN BERTSOAK

(I)

JAN-EDANAREN BERTSOAK

(I)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

JAN-EDANAREN
BERTSOAK

(I)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1982

Azala: Inazio Zuloaga'ren marrazki-lana,
Donostia'ko San Telmo Museoan.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzaile: Onena - Lasarte

Inprimatzaile: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-096-9

Depósito Legal: S. S. 135/82

Abril 1982

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
(1833) Zortzikoa: «Orain Donostiya'ko sagardo- sisetan...»	11
(1854) Bertso Berriak: «Ordiakin eztago len año demanda...»	19
Ardoa eta gizona	29
Bertso berriak: «Ogei bat bertso berri orra Tolosa'tik...»	35
(1866) Bertso Berriak: «Esplikatzera nua arduaren galak...»	53
Joxe Mari Lukainkaren andriari	61
Mari Mistelarenak	67
Bertso Berriak: «Boluntariyuak dauka suerte aberatsa...»	73
Bertso Berriak Lasarte'n jarriak sagardo txarraren gañekuak	79
Bertso Berriak (Sagardoarenak)	87
Bertso Berri-berriak Bergara'n jarriak	93
Bertso Berriak: «Bertso berri batzubek nai nituzke kanta...»	99
«Agure zar gotoso...»	105
Kaka zarrarenak	111
«Matsaren zañetik dator...»	113
«Ai au erari gozua...»	129

ITZAURREA

Izenburuak dionez, jan-edanari jarritako bertsoak osatu dute liburu au.

Jan-edanari buruz, literatura ugaria dago izkuntza guzietan. Euskeraz ere zerbait badegula, liburu onek erakutsiko digu.

Bertso biltzeari ekin genionean, bertsolariaren izena zekarten bertso-saillak, beren egillearen karpetan sartzen genituan; egillearen izenik gabekoak, berriz, gaia zer zan, alako karpeta batean jaso.

Jan-edanaren karpeta berezi bat ere bereala jarri genduan, bertsolariaren izenik gabeko bertso sail oientzat; eta karpeta ori laister asi zan loditzen.

Izan ere, gizon guziak jan-edanaren billa burruka latzak jo bear baldin badituzte jaiotzetik eriotzaraño, euskaldunak ez txikiagoak, noski, sabela berdintzeko asko bear degunaren fama degu-ta.

Liburu ontako bertsoak iru ezaugarri dituzte: gaia, jan-edana; egillea, ez-ezaguna; eta Bidasoa'z ego aldekoak izatea.

Ipar aldean, izan ere, gai ontako bertsorik asko dute. Bañan oiek inprentarako prestatzen, lan aundia bearako litzake eta beste bide batzuk korritu bearako genituan. Orregatik, beste aldi baterako utzi ditugu.

Gai guziak, leku askotatik eldu ditezke, ordea. Jan-edanaren gaia ere berdin, irakurleak ikusiko duanez.

Batek, jan-edanaren gozo eta atsegiña kantatuko digu, bazkariren batean lepo-lepo egin ondoren. Bestea, goseak jarriko du kantari. Batzuek, jatekoa ezin eskuraturik darabilzkiten komeriak azalduko dizkigute. Beste bat, ardoaren alde aterako da. Urrengoa, aurka...

Oso bertso zarrak ere badira liburu ontan. Damurik, sail osoa ez da beti azaldu. Alakoe-tan, gure eskuetara iritxi diran bertso pizarrak emango ditugu, toki bakoitzean agertu bezelaxe.

Bertso geiago ere izango da noski, gure eza-guerara etorri ez diranak, esan nai degu. Bañan txoko guzietara allegatuko dan gizonik ez da eta orrek ala bearako du.

Jan-edanaren bertso auek bildu eta moldiz-tegirako prestatu ondoren, *Auspoa*'ren bi liburu osatzeko lain zegoala ikusi genduan. Orregatik, bi aletan banatuta eskeintzen dizkiogu irakurleari.

(1833)
ZORTZIKOA
«ORAIN DONOSTIYA'KO
SAGARDO-SISETAN...»

Bertso auek, Sorabilla'ko Azelain jauregiko esku-idatzi batetik ditugu.

Idatzi orrek, *Zortzikoa* beste izenbururik ez du. Urtea nundik degun, gero esango degu. Eta bigarren izenburua, bigarren bertsoetik artua da, gaia zer dan adierazten baitu.

Sisa edo petxa berriren bat ezarria zioten sagardoari. «Kargako erreala», irugarren bertsoak dionez. Kobratzen ere asiak ziran. Emakume bati zer itxuskeri egin nai izan zioten, bostgarren bertsoak esango digu.

Nekazariak Madrilla jo zuten. Seigarren bertsoak dionez, «an ere bazeguan gizon bat abilla» eta arengana.

Gizon orrek «kontraordena» lortu zuan. «Sagarduaren sisa ill digu betiko» esaten du zortzigarren bertsoak. Eta bertsolariak bere esker ona erakusten dio.

Gora-bera oien berri, libururen batean-edo emango da noski. Bañan, denbora asko bearko

gendualakoan, ez degu argibide oien billa egiñalik txikiena ere egin.

Madrilleko jaun orren izen-abizenak, zortzigarren bertsoak ematen dizkigu: «Larreta nonbrea du, izena Nizeto...»

Nizeto Larreta orretzaz, onela dio Serapio Mujika jaunak, *Geografía general del País vasco-navarro, Provincia de Guipúzcoa*, liburuan:

«Caballero de la real y distinguida orden de Carlos III, comendador de la de Isabel la Católica, condecorado con varias cruces militares, consejero de Hacienda, camarista honorario del de guerra y director general, en comisión de propios y arbitrios del reino, en la última época del reinado de Fernando VII; después vocal del consejo real de España e Indias en la sección de hacienda. Murió en 1839. Era hermano menor del anterior (José Angel Larreta), y ambos eran hijos de la casa Azelain, de Sorabilla.»

Bertso auek Azelain'en zergatik azaldu diran, ez dago, beraz, esan bearrik: etxeko seme baten goralpenez jarriak izanik, bertan jaso ta gorde.

Bertsoen ondoren, onela irakurtzen da esku-idatzian:

«Oiarxunek kantatu zituben Aia'n, Azenziyo egunean, bertso oiek, milla eta zortzireun eta ogei eta amairugarren urtean.»

Oar onek iru gauza erakusten dizkigu:

Lendabizikoa, urtea: 1833.

Bigarrena, Aia'n kantatu zirala. Bertso-pa-

peretan zabalduko ziran, beraz. Eta Azelain'go etxean azaldu dana, bertso-paper oietako bate-tik egindako kopia degu, seguru asko.

Irugarrena, *Oiartxun* esaten zioten bertsolari batek kantatu zituala. Izenorde orrekin eza-gutzen bazuten, oiartzuarra izango zan noski.

Oiartzun'go zenbait bertsolariren bizitza ta bertsoak argitaratuak ditugu: *Auspoa* 114, 115, 116, 119, 146. Bañan batzuek jaio ga-beak ziran, eta besteak umetxoak, bertso auek Aia'n kantatu ziran urtean.

Esan degunez, Larreta jaun orri goeneko karguetan zebillen, batez ere Fernando zazpiga-rrenaren azken aldera. Ain zuzen, bertso auek 1833'eko Azentzio egunean kantatu ziran Aia'n. Errege ori, berriz, San Migel egunean il zan.

Berealaxe mugituko ziran karlistak, zazpi urteko gerra luzeari asiera emanaz. Sagardo-si-sa guziak ederki aztuko ziran orduan. Petxa ori ezin heramanik oju eta bulla altxa ziranak, ixil-ixilik egon bearko zuten gero, naiz-eta gerrak astunagoko zama bizkarrean ezarri.

Oar bat orain, azkenik, amargarren bertsoa-ren azken lerroaz. Lenengo, onela idatzi zuten: *jende minoreak*. Eta, ondoren, bi itz oiek paren-tesis batean sartu eta *nekazari jendeak* ezarri. Guk, noski, lenengoa aukeratu degu, gure lengo zarrak askotan erabiltzen zuten esaera dalako eta neurrian obeto sartzan baita. Bertsolariak ere orrelaxe bukatuko zuan bertsoa; eta gero, *minoreak* erderakada zala-ta, norbaitek eskua sartu.

1. Gizon onradu batek
enkargatu nau ni
dibersiyo berri bat
nola dan konbeni;
segitzeko asmua
artu det lan oni,
deklaratu banitza
motibuak ongi.

2. Orain Donostia'ko
sagardo-sisetan
zer pasa dan esanaz
guazen izketan;
iñon izan ezpalitz
gizonik bestetan,
nekazarien lanik
ez zeguan ezertan.

3. Adibinatu zuten
ustez bereala:
sagardoaren sisa
kargako erreala
pagatu eta libre
izango giñala;
egiñ bagez ez dira
beren egiñala.

4. Kobrantzak egitera
nola ziran asi
sustanziya onean
nai det adierazi.
Jaun oiek ez al ziran
burutikan jauzi?
Fama txarra ez dute
aurten irabazi.

5. Lau pezetagatikan
emakume bati
lepoko estalkiya
nai zioten ereki;
pobrea izan arren
etzuen erruki,
gizona zer dan obrak
agertzen du beti.

6. Aziyo onen kontra
jo degu Madrilla,
an ere bazeguan
gizon bat abilla,
jakintsuna dalarik
ona eta umilla;
urte askuan ongi
au bizi dedilla.

7. Azelain'go seme bat
probintzianua,
aberatsa dalarik
txit da umanua,
maliziya bageko
piña eta sanua;
nola portatu zagun
esatera nua.
8. Larreta nombrea du,
izena Nizeto,
gizon entenditua
dago nereko;
sagarduaren sisa
ill digu betiko,
graziyak eman bage
ez diyot utziko.
9. Dn. Nizeto jauna,
berorri eskerrak,
zenbat nagusik eta
endemas maixterrak;
errenta gutxirekiñ
dabiltzan alferrak,
nekazariyentzat guz-
tiz daude okerrak.

10. Lebitakiñ dabiltzan
errenta bageak,
ikasiaz dijuaz
abilidadeak;
segitu nai dituzte
aberatsen legeak,
mantenduko balitu
jende menoreak.
11. Amaika zientto karga
iñork bazituan,
kargako errialean
eun dukat zijuan;
ez dira erraz biltzen
lenengo txistuan,
eziñ sartuko dira
alferren ziskuan.
12. Lenengo fundamena
zuen Donostiya'n,
gero zabaldu zeriñ
paraje guztiyan;
zañak urra bekitza
dagan tokiyan,
berriz jaio ez dediñ
gure probintziyan.

13. Sagardo txakoliñak
izan bitez libre,
orien petxarikan (1)
ez da admitible;
ardit bat pagatzea
guk ez da posible,
beste moduz bearko
degu adiskide.
14. Au zan korajea eta
gizonen garbua:
petxatu nai ziguen
gure sagardua;
atera degunian
despatxu klarua,
deskansuz eran zagon
nork bere tragua.
15. Dagokiyonak orain
au adituko du:
Kobranza oriyekiñ
aurrera zer modu?
Enpleo orrek noski
kontraordena du,
zuek asarre baña
kontentu gera gu.

(1) Esku-idatzian: *oien*. Neurriagatik *orien* ezarri degu,
15/3'an ere ala baitago.

(1854)
BERTSO BERRIAK
«ORDIAKIN EZTAGO LEN AÑE
DEMANDA...»

Bertso auek, Tolosa'ko Isaak Lopez-Mendizabal zanaren esku-idatzi batetik ditugu. Letraren eta paperaren itxurak aditzera ematen duenez, bertsoak jarri ziran garaikoa da esku-idatzi ori. Eta bertsoak noizkoak diran, lenengo bertsoak esaten digu.

Izenbururik ez du sail onek esku-idatzi ortan. Emen dituanak, guk ezarriak dira. Luze ori, ain zuzen, lenengo bertsoetik artua, gaiaren agergarri izan dedin.

Amabigarren bertsoak dionez, orduko alka-teak gauzez erronda egiten ibiltzen ziran, kalez kale eta tabernaz taberna, jendea etxera araziaz. Ori zala-ta, gertaera eta bertso polit batzuk ere badira. Ikus: *Auspoa* 74-75, 51 orri-aldean.

Beste bi tokitan ere azaldu dira bertso auek. Iturri oien berri, gero emango degu.

1. Berrogei ta amalau
milla zortzireun da,
Kristo mundura zala
garai onetan da;
urte juiziozkoa
Jainkoak emanda,
ordiakin eztago
len aÑe demanda.

2. Ardo asko tiratu
dizkigu Frantzia'k,
ur naste bete dira
sagardo-ontziak;
ona merke erateko
alkontra guziak,
txarra galestitzeko
daude notiziak.

3. Ona ta merke nai guk
izan ezkerozti,
bañan billatzen degu
txarra ta galesti;
ez diteke zintzurra
nai bezin maiz busti,
gure irabaziak
gutxik daramazki.

4. Pobreok lan daukagu
oraintxe bizitzen,
erariak bi moduz
dijuaz gazitzen;
gure jornalik berriz
etzaku azitzen,
berriz ere egongo (1)
gera padezitzen.

5. Berotasun aundirik
eztegu kolkoan,
etxean penaz eta
tristuran kanpoan;
alimentu eskasa
nekatutakoan,
umill gelditzen gera
nor bere zokoan.

6. Ire ona jo dute
ordiak umiltzeko,
burua sano dala
egarria iltzeko,
eta berentzat erraz
koartoak biltzeko,
bañan ez langillea
bizkor ibiltzeko.

(1) Lenengo *biziko* idatzi zuan egilleak edo kopiatzalleak;
eta, urrena, itz ori tatxatu eta *egongo* ezarri.

7. Langilleai komeni
erari puruak,
bizkor erabiltzeko
bere sentiruak;
bañan arreglatzeko
ordien buruak,
aurten egin dituzte
on diran moduak.

8. Eskolaren batean
dute estudiatu,
ordiak sujetatzen
zer moduz giatu;
bizio au kentzeko
zaizkigu saiatu,
argatik erariak
dira bataiatu.

9 Alferrik ari dira
pulpitutik oska,
bendizio urarenak
umillago gauzka;
ai, oraingo jendeak
astuziak dauzka,
orra poliki kendu
orditzeko kezka.

10. Ura baliente da
bere azioan,
aurreratu eztedin
iñor bizioan;
zintzo gordetzen gaitu
geren juizioan,
argatik egongo da
goien prezioan.

11. Asko eranagati
urak eztu gaitzik,
ark eztu eralkitzen
pasioko itzik;
gorrotoan eztingu
ipintzen biotzik,
pakerako eztago
alako juezik.

12. Urak merito asko
daruzka berekin,
erretira plontoa
jeneral arekin;
ezta disputatuko
alkatearekin,
erronda egingo du
bein esanarekin.

13. Utzi dio jendeak
bulla ta erronkari,
eztago tabernetan
len aÑe kantari;
andreak daruzkagu
nun-nai agintari,
begira umilduta
gizonen plantari.

14. Zintzotu-azi dira
oraintxe ordiak,
buruak sano dabiltz,
memori argiak;
soÑean ere txukun
arropa garbiak,
modu askotan daude
bentaja aundiak.

15. Gonbitean eztabil
gizonikan prestu,
artu-eman oietan
berdin edo justu;
bildurrez gabiltzala
bolsak sarri ustu,
erari galestiak
badu milla gastu.

16. Aua dabillean
sabeleti poztu,
asko eraten badu
barrundikan oztu;
berotasun aundirik
sentituko eztu,
izatekotan ere
tripatikan puztu.
17. Bildur gera tabernan
aurten sartutzeko,
allegatzea asko da
bolsak ustutzeko;
urte ona pobreak
aberastutzeko,
modu onean gaude
penak aztutzeko.
18. Allegatutzen bada
bat premiarekin,
orra zer lan dagoan
erariarekin:
bolsa ustu, berotu ez,
irten penarekin,
alakoak tristura
darama berekin.

19. Prezio aundia ta
alimentu gutxi
aurtengo erariak
ditu erakutsi;
erate aundiari
obe zaio utzi,
eta kankak artzeko
txanpon banaz etsi.

20. Erariak galesti
dabiltzan artean,
pobreok tabernati
bearko apartean;
tristura franko dago
aurtengo urtean,
kantatuaz sikira
konsola gaitean.

Tolosa'ko Fakundo Adurriaga «Besamotza» zanaren kuadernoan ere arkitu ditugu bertso auek. Bañan guziak ez; bi falta: 4 eta 10'garrena.

Izenburua: Frantzesaren ardo karretuan gañean.

Bertsoen aldaketak: 1/1: Larogei urte dira; 1/6: Jaungoikuak emanda; 1/7: ordiyakin ez dabill; 1/8: len aña demanda; 2/7: txarrak garestitzeko; 2/8: dira notiziyak; 3/2: izan ezkeroztik; 3/4: txarra ta garesti; 5/2: ez degu kolkoan; 5/4: tristura kanpuan; 6/1: Idia ona jo dute; 6/5: eta berentzat ere; 7/1: Langilliar komeni; 7/4: bere sentiduak; 8/8: dira garestitu; 9/1: Alferrick ari ziran; 9/4: umillago dauzka; 11/1: Asko eranagatik; 11/2: urak ez du gaitzik; 11/3: ark ez du eralkitzen; 11/5: gorrotu ez digu; 11/7: pakerako ez dago; 12/1: Urak merit asko; 12/2: daduzka berekin; 12/3: erretira prontua; 12/5: ez da disputatuko; 13/3: ez dago tabernetan; 13/5: andriak daduzkagu; 13/8: gizonan plantari; 14/5: soñean ere txukun da; 14/7 eta 8: falta; 15/1: Gonbition ez dabil; 15/7: erari garestiyak; 16/1: Au da dabilienian; 16/2: sabeletik poztu; 16/4: barrendikan oztu; 17/5: urte ona pobria; 20/1: Erariyak garesti; 20/3: pobria tabernatik; 18/7: kantatuaz sikiera.

* * *

Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batean ere, sail ontako bertsorik geienak agertu ziran. Paper ori, Errenteri'ko Jertrudis Arrieta zanaren eskutik jaso genduan.

Bertsoak beste orden onetan daude: 1, 2, 3, 20, 4, 8; ondoren bi bertso berri; 12, 11, 10, 16, 9, 13 eta 15; eta bukaerako beste bertso berri bat.

Aldaketak: 1/1: Larogei ta amalau urte; 2/1: Ardo asko tiratzen; 2/3: ur nastez bete dira; 2/6: alrebes guziak; 3/2: izan ezkeroztik; 3/5: ez liteke zintzurra; 4/1: Pobreak lan daukagu; 4/6: etzaigu azitzen; 8/1: Kolejioren batean; 8/5: asko eranagatik; 8/6: suabe geratu; 9/1: Alperrik ari ziran;

10/3: aurreratu ez dedin; 10/5: guziok edukitzen; 10/6: gaitu juizioan; 11/1: Asko eranagatik; 11/2: urak ez du gaitzik; 11/3: ark ez du eralkitzen; 11/5: gorrotuan ez digu; 11/7: pakeako ez dago; 12/2: daduzka berekiñ; 12/3: erretira pronto; 12/4: jeneral arekiñ; 12/5: ez da disputatuko; 12/8: beñ esanarekiñ; 13/3: ez dago tabernetan; 13/4: len aña kantari; 13/5: andreak daduzkagu; 15/1: Neurri oiekin ere; 15/2: ez dabilta justu; 15/3: baso txikiak eta; 15/4: betetzea aztu; 16/1: Auba dabillean; 16/2: sabeletik poztu; 16/4: barrendikan ozdu; 20/2: dauden bitartean; 20/3: pobreak tabernatik; 20/4: bear apartean; 20/7: kantatuaz sikiera.

Eta bertso berriak:

Komerziante oiek
eta likoristak
ura manejatutzen
dabilzkite festak;
ez det esan bearrik,
ikusiak dauzkat,
zer modutan egiten
ari diran mezkak.

Propietarioak
du mezkla aurrena,
likorista oriek
berriz bigarrena;
tabernariak berriz
seguro urrena,
erari onak sartzen
ditugu barrena.

Komerziante oiek
ditut enkargatzen
ez ibilitutzeko
osasunik galtzen;
saiatu urarekin
diru asko biltzen,
ez espiritu gaiztoz
gizonikan iltzen.

ARDOA ETA GIZONA

Ardoa eta gizona mintzatuko dira bertso auetan. Donostia'n arkitu ditugu, Bonaparte-ren paperetan, eskuz idatzita. Noizkoak diran ez da esaten. Bañan Bonaparte'k bost bixita egin zituan Euskalerrira, 1856'tik 1869'ra, eta bitarte ortan bilduko zituan.

Lenengo, doña jartzen degu, Azkue'ren kantutegitik, 94 zenbakitik artua, berak Getaria'n Balbina Berasaluze'ren aotik jaso. Eta ondoren bertsoak.





1. Ardoa eta gizona
dijoaz kantatzera,
nork ez du belarria
parako aditzera?
Gizonak galdetzen dio:
—Ona ote zera?
—Botellan nago eta
asi progatzera.

2. —Ardoa, *din din* zatoz
botellatikan pozez,
piskabana nai zaitut,
ez guzia golpez;
usaiz ona zerade,
obea kolorez,
gustoan progatzeko
agoan sar zaitez.

3. —Ardoak deitzen dizu
pozez zoraturik,
ez da nigana etorri
zu bezelakorik;
preso iduki naute
kortxo tapaturik,
zuk libratu nazu ta
ez utzi tantorik.

4. —Agoa kontentu da
gustoan zurekin,
orain ezin burutu det
eztarriarekin;
arren, busti dezadala
ondotxo zurekin,
ea pakea egizu
len-bait-len onekin.

5. —Agoan sartu ezker
banuen esperantza,
zergatik eztarria dan
legorkorra ta latza;
ongitxo artu nazazu
gozatu al baneza,
ni ara allegatzean
zer triparen poza!

6. —Tripak deitutzen dizu:
adiskide maitea,
nizaz ere len-bait-len
oroitu zaitea;
guziz nago pisua,
illuna ta tristea,
ea prokura ezazu
ni konsolatzea.

7. —Nik badakit sendatzen
tristura eta penak,
baita bizkortzen ere
plakotxo daudenak;
kantari paratzen ditut
gizonik tristenak,
baita menderatu ere
diran sendoenak.

8. —Ez niri orrelako
eskusarik paratu,
goiko bizitzak ori
oi du disponitu;
zeñek bere kontuak
ateratzen ditu,
nere zakuan nai det
nik ongi paratu.

9. –Botellan baño naiago
det zurekin bizi,
konseju onak ematen
bear det nik asi;
baldin nai badezu zuk
zere etxean nagusi,
geiago nai nazula
bear nazu utzi (1).

10. –Juntatu diranean
adiskide biak,
tripak egin diozkan
ongi etorriak!
Ondo artu zaituzte
ago eztarriak,
ez ditu errukitu
nik neuken premiak.

11. –Nere indarra bada
burura allegatzen,
entendimentua ere
sobra du illuntzen,
memoria plakatuta
mingaña moteltzen;
gizona andik aurrera
det nik menderatzen.

(1) Bertso-paperak: *beaz*.

12. –Ardoa, predikadore
jarri al zerade?
Ta oraindañoko oriek
egiak dirade?
Mendean zaitudala
nai zaitut adiskide,
eskerrik asko ta *adiós*,
partitzen gerade.

Azkue'k, len esandako tokian, lau bertso ditu: 1, 3, 2 ta 5'garrena, orden orretan.

Aldaketak: 2/1-2: Ardoa: klin klin zatoz botellatik pozez; 2/3-4: puxkaz naiago zaitut, ez guztia kolpez; 2/5: usaiz ona zera ta; 2/8: agoan sartu zaitez; 3/1-2: Ardoak erantzuten du pozak zoraturik; 3/3-4: ezta nigana etorri zeu bezelakorik; 5/4: elkorra ta latza; 5/5: ondotxo ar nazazu; 5/7: negarra allegatzean.

BERTSO BERRIAK
«OGEI BAT BERTSO BERRI ORRA
TOLOSA'TIK...»

Bertso auek noizkoak diran, ez da iñun ere esaten. Bañan aspaldikoak dirala, irakurri utsarekin garbi ikusten da.

Argibidea jakingarri bat, Fr. Michel'en *Le pays basque* liburuan arkitu degu: 426 orrialdean sail ontako lenengo bertsoa aitatzen baita, eta liburu ori 1857'an agertu baitzan.

Nungoak diran, lenengo bertsoak dio: Tolosa'tik eta fabrika zarretik. Fabrika zar ori Tolosa'n nun zan, guk ez dakigu. Tolosar zar batzuei galdetu eta berak ere ez dakite.

Leon'go fabrika diote bertso-paper batzuek 13'gn bertsoan. Beste batzuek, *leengo fabrika*. Orréla balitz, dalako fabrika zarra izan diteke; Eta *Leon'go fabrika* bada, Leon erria aitatuko da; gizona balitz, *Leon'en* litzake ta.

Lenengo, bertsoak ezarriko ditugu; urrena, argitaraldiak aiatatu; eta, azkenik, doñuak.

1. Ogei bat bertso berri
orra Tolosa'tik,
illia urdinduta
fabrika zarretik,
inprentan ere ongi
moldez paraturik,
mozkorra geldi dedin
eskarmentaturik.

2. Ardoaren bentajak
noa esatera,
milagro aundigorik
munduan ote da?
Asi baño lenago
iñor edatera,
zenbat konbeni zaion
kontubak atera.

3. Ezta filosoforik,
ez teologorik,
arduari neurriya
artuko dionik;
gizon aundiyak ere
ikusi ditut nik,
beren mozkorra ezin
disimulaturik (1).

(1) Bertso au, Aita Meagher'ena dala uste degu.

4. Gizonak galdetzen du:
—Non da ardo ona?
Ardoak erantzuten tu:
—Emen nago, jauna;
zu nai zinduzket artu
nerekin laguna,
bildur gabe pasatzeko
gauba eta eguna.
5. Preso para ninduten
kupela batian,
geroztik emen nago
sei illabetian;
nik lagunduko zaitut
amorio on batian,
begira izan ez dedin
zuretzat kaltian.
6. —Peleatzera nator,
ardoa, zurekin,
zenbat fuerza dituzun
bear nuke jakin;
betor matsaren kasta
bere adarrakin,
ez naiz ikaratuko
arren indarrakin.

7. Ardoak esaten du:
—Begira, tontua:
ez badek ateratzen
obeki kontua,
laster jarriko zaizu
mingaña mutua,
burua makurturik
oso zoratua.
8. Ardoak ematen du
berak aditzera:
—Aski edan dezute,
zuazte etxera.
Zertara etorri zera
neri agintzera?
Oraindikan nerekin
nagusi etzera.
9. Gizonak obe luke
ez jaio mundura,
arduak galdutzekoz
bere ezaguera;
noiz-nai amilduta
erreka-zulora,
igual sartuko da
sukaldeko sura.

10. Batian arrastaka,
bestian erori,
nolabait etxera da
gizon eder ori;
gero maldiziyoka
andre gaxoari,
txapela kendutzeko
tabernariyari.
11. –Gizona, etzin zaitetz
pakian oiera,
eguna argitzian
konponduko gera.
Txapela prenda utzita
etorri al zera?
Kreditu ederren bat
badegu zartzera.
12. Arduak etzuela
zeñion indarrik,
txapela batengatik
ez egin negarrik;
ez det ikusi nai nik
orrela senarrik,
ez du buru galdubak
txapela bearrik.

13. Esaten dizut bada,
beti alferrikan,
etzaitela gustatzen
gizon mozkorrikan;
beti txapelik gabe
zu tabernatikan,
ondatuko zenduke
leengo fabrika.
14. Alako gizon txarra
mozkortzen danian,
lengo pensamentubak
ditu mingañian;
ez perdonarik egin
gaurko egunian,
ardua geldi dedin
kreditu onian.
15. Aski da ikustea
andre bat ordiya,
edango eta naiago,
beti egarriya;
nonbait legorra dago
arren eztarriya,
ori da biziyo bat
etxe-galgarriya.

16. Alako familiyan
bada sobra neke,
neregandikan beintzat
urruti nai nuke;
Burdeos guziya ere
bera baluke,
iru urte baño len
tragatuko luke.

17. Edari gustokua
matsaren zumua,
orrek enredatzen du
galanki mundua;
gutxi izana dute
batzuek damua,
naiz egin dezatela
nun-nai alderoa

18. Andria ezin altxatuz
senarra ari da,
parrez itotzen dago
jendia begira;
altxatu dolorez ta
berriz erori da,
zikintzeko bildurrez
loiaren erdira.

19. Oriyek ikusita,
mozkortzen danari
pozik emango nioke
frasko bat edari;
ez naiz ikaratuko
esatiaz ori,
sekulako arrekin
eskarmenta dedin (2).

20. Au da errematia
gure arduana,
ia nor asiko dan
mozkortzen aurrena;
biziyo guzietan
ori da txarrena,
mandamentu guziak
galtzen dituena.

* * * * *

Orain urrena bertso auen argitaraldiak aita-
tuko ditugu. Bañan aldaketarik esan gabe.
Geienak inprentaren utsegiteak baitira.

Bertso-papera, *Imp. de B. Valverde - Irún*,
Tolosa'ko Baleriano Mokoroa zanaren papere-
tan agertua eta beraren seme-alaben eskutik ja-
soa.

(2) Bearbada, *bedi* bearko luke emen.

Bertso-papera, *Rentería - Tip. Vda. Valverde, Bodleyan Library, Oxford.*

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde,* beste argitaraldi bat, Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduman.

Bertso-papera, *Imprenta de Orúe. - Eibar.* Ez nuen apuntatu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera, *Imp. de S. de Diego. - Eibar,* Eulio Bidea Agirre, Zabale, Leioa. Onek izenburua: *Arduaren hazañak.* Ondorengo geienak ere berdin.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Juan Iturralde, «Juanito Kojua», Donostia. Argitaraldi au, Lekarotz'en, Aita Donosti zanaren bilduman ere bada.

Argia astekaria, 1934, otsaila, 11 eta 18'an.

Argia astekaria, beste aldi batean, bertso guziak batera, bañan egunik ez dakigu.

El Día egunkaria, 1934, urria, 17.

Euskal Erriko kanta zarrak liburuxka, Errenteri'ko Makazaga'renean argitaratua.

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu bertso auek zenbait orri eta kuadernotan, batzuetan sail osoa, geienetan erdizka. Ez gera esku-idazki oiek aitatzen asiko, geiegi luzatuko giñake ta.

Bañan txeetasun bat bada oso gogoangarria. Idazki oietako bat Argentina'tik etorria da; beste bat, berriz, Paris'ko *Bibliothèque Nationale'n* azaldu da.

* * * * *

Lenengo doñu au, Errenteri'ko Makazaga
moldiztegiak argitaratuko *Euskal Erriko kanta
zarrak* liburuxkatik:



Aita Donosti'k ere badakar doñu au bera, *Euskal eres sorta* kanta-bilduman, 50 zenbakian. Bañan Makazaga'k daukan ori bera da, edo berdintsua, beste tonalidade batean.

* * * * *


Urrengo doñu au, Azkue'ren *Cancionero popular vasco* liburutik artua da, 505 gn. zenbaketik, 685 orri-aldetik.

Azkue'k aldi ontan, sei lerroren doñua dakar. Zortzi lerro kantatzeko, naikoa da, euskal doñuetan ainbestetan egiten denez, lenengo eta bigarren lerroen doñuak bi bider kantatzea:



* * * * *

Urrengo doñu au, Azkue'k Ernialde'n jaso zuan. Noren aotik ez du esaten. Bere esku-ida-tzietan argitaratu gabe utzi zuan. Laugarren bertsoa kantatu zioten:



* * * * *

Beste doñu au ere Azkue'k bildua da, nun eta noren aotik esaten ez badu ere. Bañan bere esku-idatzietan argitaratu gabe utzi zituan. Ontan ere, laugarren bertsoa kantatu zioten:



* * * *

Urrengo au, Tolosa'ko Jesus Elosegi zana-
ren eskuz idatzitako kuaderno batetik:



* * * * *

Beste doñu au, Oiartzun'en jaso genduan,
Ugaldetxo'ko Larria etxean, Frantzisko Laban-
dibar zanaren aotik:



* * * * *

Azken doñu au, Irura'n jaso genduan, Inazio Arregi segalariaren aotik. Lenengo iru bertsoak kantatu zizkigun:

The image shows a musical score for a song in 3/4 time, consisting of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef and a 3/4 time signature. The melody is written in a simple, folk-like style, primarily using quarter and eighth notes. The music is arranged in a single system of eight staves, with the first staff starting with a treble clef and a 3/4 time signature. The notes are mostly quarter and eighth notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line on the eighth staff.

(1866)
BERTSO BERRIAK
«ESPLIKATZERA NUA ARDUAREN
GALAK...»

Amasei bertso, oraingo sail ontan. Alegi'ko Rikardo Intxausti zanaren bertso-bilduman arkitu ditugu.

Bertso-paper bat da. Moldiztegi-izena ez ezik, urtea ere badu: *Irunen 1866.- Francisco Huarte-ren moldizteguian.*

Senar-emazte ardozale batzuen bizimodua agertzen digute bertso auk.

Damurik, bertsolariaren izenik ez da inun esaten.

Bañan amaseigarren bertsoak onela dio: «nor diran dakiyena San Martiñ'en dago». Zer edo nungo San Martin da ori?

Ori jakiñik, argi-izpi bat izango genduan, noski.

Bañan San Martin aitatzeko alde batera utzirik, beste txetasun auk kontuan artu bear genituzke:

Bertso onak dira, 1866 urtekoak, Irun'en argitaratuak eta Errenteri-Oiartzun aldeko izkera dutenak.

Oiek danak batera bilduta, onako galdera
au egin genezake:

Ez al dira bertso auek Xenpelarrek jarriak
izango?

1. Esplikatzera nua
eranaren galak,
balio baldin badu
nere egiñalak;
andrea ta senarra
biyak igualak,
botella tapatzen du
aurreko mantalak.

2. Jaikitzen diranian
kalera korrika,
eztago mugitzeko
esan biarrika;
betetzen zaienian
aurreko barrika,
arratsean eztute
sorgin-bildurrika.

3. Zortzietan oiera
deskantsu onian,
bederatziyak arte
bidaramonian;
andrea tabernara
flakutzen danian,
labiak sutan daude
oien barrenian.

4. Mantalaren azpiyan
sarturik botilla (1),
tabernara dijua
alimentu billa;
dirurik ezpadakar
milla maratilla,
berriz etortzen bada
dantzatu makilla.

5. Ezta gezurrezkoa
nere alabantza,
egiak diradela
artu konfiantza;
matrimoniyo batek
orlako krietza,
gizonak ere badu
andrearen antza.

(1) Bertso-paperak: *botella*.

6. Lengo egun bateko
funziyoa omen da,
txopin bana bazuten
biyak merienda;
atxurra ta mantala
arduaren prenda,
ezta aberastuko
oriyekin denda.

7. Atxurrak baliyo du
pezeta pareta,
andrearen mantala
terzera klasea (2);
arduak egin diye
prezio luzea,
gañera egaztiyakin
il dute gosea.

8. Jeniyo batekuak
senar-emazteak,
baten arraziyua
biar du besteak;
oiekin tabernari
daguena tristeak,
alferrik bete biar
tripako esteak (3).

(2) Bertso-paperak: *klasia*.

(3) Bertso-paperak onela ditu puntuak: *emazteak, bes-
tiak, tristeak, estiak*.

9. Gero tabernatikan
etxera abiya:
gizona ziraldoka,
andrea eroriya;
ekusi deranian
oien komeriya,
farrez nere burua
lertu nuen iya.
10. Ekusi duenian
andrea erortzen,
altxatzera asi da
gizona makurtzen;
gañera bueltatzeko
jendea beldur zen,
etxera juanak dira
kamiñoak neurtzen.
11. Etxera joan eta
oiaren onduan,
zurruta biotzean,
ardua goguan;
ezin erantzirikan
umien moduan,
oiek egiak dira
nola emen nagan.

12. Gizonak ala zion:
«Eranak gaude gu;
ekusten gaituenak
zer esan biar du?»
Andrearen mingaña
etzeguen baru:
«Biyar ere joain gera
Jainkuak nai badu!»

13. Nafar aguardienta
erari gozua,
senar-emazteentzat
txopin bat osua;
andreak ustutzen du
txikiko basua,
laister piztuko dute
estietan sua.

14. Aguardienteak asi,
ardoak orditu,
goizetik asten dira,
berandu gelditu;
mingaña motelduta
begiyak gorritu,
orra ezarrarian ere
kañuak garbitu.

15. Andria baldin bada
ardo-eralia,
izango du txukuna
edo loalia;
neroni iñor bezin
erari-zalia,
ez nituke esango
gezurrak balia.

16. Orra bertso berriyak
onekin akabo,
nor diran dakiyena
San Martiñ'en dago;
izena nola duten
esango det klaro:
andriak Txopin eta
gizonak Kantaro.

JOXE MARI LUKAINKAREN ANDRIARI

Amabi bertso auek, *Tolosa Imp. de Francisco Muguerza* moldiztegiak argitaratutako bertso-paper batetik ditugu.

Paper ori, Tolosa'n bertan jaso genduan, Aita Garate prantziskotarraren eskutik.

Papera jira guzian lardaxkaturik dago eta ertzak falta ditu.

Orregatik, or goien ezarri degun izenburua oso-osorik eta ederki irakurtzen bazaio ere, badikeke aurretik beste zerbait galduta izatea.

Bearbada, gure iritzirako beintzat, izenburu osoa onela izango zan: *Bertso Berriyak Joxe Mari Lukainkaren andriari.*

Damurik, ez da ageri ez egillearen izenik, ez bertsoak jarri ziran urterik, ez Joxe Mari Lukainka orren erririk. Ezta txetasun oiek sumatzeko biderik ere.

1. Joxe Mari Lukainkak
duen andre ori,
muturra zimur dauka,
ipurdiya guri;
mokoz ere ez dio
barkatzen iñori,
egiya esateko
xoxua diruri (1).

2. Uda berrian dute
xoxuak kantatzen,
andre oni etzaio
onela gertatzen;
baldiñ ez badiozu
mokorik moztutzen,
orduro ariko da
bartzarrak nastutzen.

3. Oietik jaiki eta
xirri eta xarra,
azkar billatutzen du (2)
nun dagon pattarra;
begi gorri aietan
jarririk makarra,
eguerdia baño len
dirudi kottorra.

(1) Bertso-paperak: *xoxua dirudi*.

(2) Bertso-paperak: *azkar billatzen du*.

4. Goizetik mantalpian
arturik botilla,
tabernara dijua
pattarraren billa;
gero txurrut eginda
arren iskanbilla,
berriketarako bai
orduan abilla (3).

5. Lanetikan gizona
gero etortzian,
txit bazkari ederra
dauka bai etxian:
dozen erdi baberrun
jiraka eltzian,
koipea emateko
gero ekartzian.

6. Estomagua dauka
askotan zikiña,
eta maiz izaten du
agiñeko miña;
Joxe Marik badaki
zer dan orren griña,
gaitz danak sendatzeko
pattarra jakiña.

(3) Bertso au eta aurreko saillaren laugarrena, berdintsuak dira.

7. Joxe Mari bizi da
bai modu onetan,
lanetikan etortzen
da eguerdietetan;
bazkaririk jarri gabe
dauka erdietetan,
eta atsua bera
berriz errietan.

8. Nonbaitetik bear da
onentzat azaldu,
pattarrarentzat ainbat
naiz koltxoia saldu;
andik asko...n ta (4)
lotsa dana galdu,
gero egun guzian
au zeñek ixildu?

9. Onekin errietan
iñor bada asten,
lana franko badauka
baza irabazten;
asten da infernuko
itz guztiyak nasten,
eta bere kontuak
besteri erasten.

(4) Papera puskatuta dago eta letra batzuk falta emen.

10. Kaiolan jarririkan
andrea kantari,
ondo biziko zera
zu bai, Joxe Mari;
bañan eman zaiozu
zurruta ugari,
orduan barkatuko
ez dio iñori.

11. Alferrik egiten du
Joxe Marik lana,
izango duelako
alimentu ona;
beñere ez da allegatzen
ori onengana,
andrentzat ainbat ez du
irabazten dana.

12. Joxe Mari Lukainka
erruki dezagun,
eta al dan guztiyan (5)
egiñ berriz lagun;
ondo bizi eztala
berak du ezagun,
infernua munduan
dauka gau eta egun.

(5) Bertso-paperak: *guztiyak*.

MARI MISTELARENAK

Amabi bertso auk, izenburu orrekin berarekin, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren album edo kuadernoan arkitu ditugu.

Eskuz idatzita daude. Ez dira, alegia, moldiztegiko bertso-paper batetik artuak. Bañan, seguru aski, olako batetik kopiatuko zituan Adurriaga'k.

Urterik ez da inun ageri, eta egillearen izenik ere ez.

Ala ere, bertso-sail onek aurrekoarekin zer ikusirik baduala esan genezake:

Ango 2 eta 9'garren bertsoak eta emengo 4 eta 7'garrenak, berdintsuak dira.

Eta aurreko sailaren 4'garrena, beraren aurreko sailaren 4'garrena eta sail ontako 2'garrena ere, berdintsuak.

*Ordurik geienian
egiten du txurrut,
gero noizik beñetan
atzetikan purrut.*

1. Jarri dezagun nor
dan Mari Mistela,
diyote parekorik
munduan eztela;
triki montañetan ez (*sic*)
diruri kupela,
obrak esamiñatu
ditzagun bestela.
Ordurik...

2. Goizero mantalpian
arturik botilla,
tabernara dijua
mistelaren billa;
disimulatutzeko
buruan mantilla,
beataren paperak
egiñaz dabilla.
Ordurik...

3. Aforrua egiten du
atearen ostean,
ixillik dabil atso
au bere ustean;
txorizo bat diruri
edaten astean,
gero dira kontuak
botillak ustean.

Ordurik...

4. Andikan elizara
dijualakuan,
sartzen da aguardinta
saltzen dan lekuan;
botilla beterikan
arturik kolkuan,
sorgin bildurrik gabe
dabil alakuan.

Ordurik...

5. Eguardirako beti
egiñikan *ruple*, (*sic*)
arratserako ziur
artzen digu pepe;
batari ostiko ta
bestiari golpe,
naiz-da idiya izan
buruakin tope.

Ordurik...

6. Kamiyua betian
egiñaz arrolak,
erruki ditut jotzen
dituen arbolak;
larogei dira ausi
dituan farolak,
bañan kulpa bakarrik
dauka alkoolak.

Ordurik...

7 Kulpa beti botiaz
besteren lepora,
oni dijuakiyo
munduan denbora;
bañan bere aotik
datorren bapora,
kapaz da bultzatzeko
trena aldatz gora.

Ordurik...

8. Berekin darabilki
iru txakur txolin,
aiekin dantzatzen du
ederki txakolin;
alferrik dago bada
errian txanbolin,
Mari Mistela dabil
guzien danbolin.

Ordurik...

9. Gizona baraurikan
dauka erdietan,
gañerako guzian
osoro dietan;
erremediatzeko
beti errietan,
makilla ezpadio
austen gerrietan.

Ordurik...

10. Rapez beterik sarri
doministikoka,
alboko guztiari
dago ostikoka;
badariyo makarra,
adurra ta kaka,
Mari Mistelan dendak
zernai gauza dauka.

Ordurik...

11. Uzkarrak berriz ditu
botatzen dozenak,
ikaratutzen dira
ona datozenak;
bertan ere badaude
sujeto zuzenak,
Mari Mistelarekin
egiten zezenak.

Ordurik...

12. Agur, Mari Mistela,
zure ille-trentzak
adinakuak ditu
okozpian auntzak;
dituzu emakume
formalean antzak,
emen amaitzen ditut
zure alabantzak.

Ordurik...

BERTSO BERRIAK
«BOLUNTARIYUAK DAUKA SUERTE
ABERATSA...»

Bertso auek, Donostia'ko Jose Manterola zanaren bildumatik ditugu; moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batetik.

Bi zati ditu sail onek: lenengoan, *boluntario* bati legatz batekin zer gertatu zitzaion kontatzen zaigu; bigarrenengan, Lexo izeneko bat «izokiyaren partez» uretatik nola atera zuten.

Boluntario itz orrek, gerra-usaia dakar. Liberalak, Donostia'n-eta, erria zaintzeko, bertako gizonak artzen zituzten, ala nai zutenak noski, eta izen ori ematen zieten. Bilintx ere oieta-koa izan zan.

Karlisten bigarren gerratean (1872-1876) jarritako bertsoak, beraz, seguru aski.

Gauza bera atera genezake beste bide batetik ere. Manterola'ren bilduma orretan, 1877 urtea irakurtzen da lenengo orri-aldean. Urte ori baño lenagoko bertsoz osatutako bilduma, beraz. Eta bertso auek ere bai, noski.

1. Boluntariyuak dauka
suerte aberatsa,
nik aditzia dedanez
ez ala ere eskasa;
orlako konturikan
ez da iñon pasa,
igesi jua zaio
portutik legatza.

2. Burubari elduta
negar egiñ iya,
eziñ arrapaturik
aren errabiya:
«Orrekin gastatu det
beitaren erdiya,
orrenbeste kostata
au da pikardiya».

3. Lagunari erriyetan
eta sesiyua,
zergatik pasa zaion
alako aziyua;
librako iru errial
zuben preziyua,
etzebillen kontentu
boluntariyua.

4. Legatza itxasuan da
etxian butxia,
arrantzalia da ori
orrelakoxia;
funziyo eder ori
emen ikusi da,
len aprendiza zan da
orain nagusi da.

5. Billatu omen zuben
urrengo egunian,
maria bajatu ta
agertu zanian;
legatzak preziyo ona
gaurko egunian,
etzeguen asarre
artu zubenian.

6. Len ere ibilli zan
guziz tentatuta,
probetxurikan gabe
ala nekatuta;
lau libra omen zuben
berriz pisatuta,
baita pozik jan ere
ondo gisatuta.

7. Zubiyan pasatu da
berriz komeriya,
nik aditu dedanez
txit farragarriya:
ortik atera dute
izoki aundiya,
begira zeguen guziyak
zeukan inbiriya.
8. Arraiari arrika
ziyoten eraso,
atxitu biatela
berentzat preziso;
abotik iya ito ta
anquetatik preso,
izokiyaren partez
arrastaka Lexo.
9. Basterretxe'k sokari (1)
tira ziyen pronto,
jendia ernaia ta
etzeguen tonto;
piska bat tardatu balu
gure Lexo kito,
kontentu asko dira
ez danian ito.

(1) Bertso-paperak: *Basterreche socari*.

10. Arraia biarrian
zuten aragiya,
itxasotik kentzeko
gauza egokiya;
sei arrua pisuban
bazeukaten iya,
libraka salduzkeko
ai zer izokiya!
11. Neronek aditu niyon
Lexori kalia:
«Kontuz ibilliko naiz
urrengo marian,
deskuidatu gabetanik
aurrera urian,
arrapatu ez nazaten
izoki-sarian».
12. Erregalo egiteko
nork egiñ zestuba?
Zimitz asko biar ta
egiten gastuba;
buelta dabilela
burutik nastuba,
ura asko eran eta
tripa're puztuba.

13. Orra amairu bertso
biyentzat pariak,
konprendituko ditu
bakoitzak beriak (2);
gauza falta dubenak
beti doloriak,
estimaziyo txarra
orlako pobriak.

(2) Bertso-paperak: *beria*.

BERTSO BERRIAK
LASARTE'N JARRIAK
SAGARDO TXARRAREN GAÑEKUAK
(1877-1878)

Amasei bertso auek, *Donostiyan*: - *Juan Osesen moldizteguiyan* argitara eman ziran kanta-paperetan.

Paper oietako bat, *Loiola*'ko liburutegian, *Aita Jose Inazio Arana* zanaren bertso-bilduman, azaldu da.

Eta beste bat *Paris*'ko *Bibliothèque Nationale*'n, *D'Abbadie* zanaren bilduman.

Kanta-paper onek, *Bertso Berriak Lasarte'n jarriak* izenburua du, inprentaz idatzita. Bestetik ez.

Gañontzekoa, *cursiva* deritzaion letraz ageri dana alegia, eskuz erantsita dago bi paper oietan.

Bañan bietan esku bera, idazkerak garbi asko salatzen duanez.

Zer gertatuko zan igertzen, gauza erreza dala uste degu. Aita Arana orrek bi ale eskuetaratuko zituan; eta eraskin oiek eskuz idatzita, ale bat beretzat gorde eta bestea D'Abbadie jaunari bialdu.

Sagardo txarraren gañekuak idaztearekin, bertsoen gaia adierazi naiko zuan.

Eta urtea 1877-1878 ipintzearekin, bertsoetan ez da olakorik ezer ere ageri eta utsune ori bete; kanta-papera noiztsu agertu zan edo berak noiztsu bereganatu zuan, alegia.

Ain zuzen, Bilintxen (1831-1876) zenbait bertso-sail, Donostia'ko *Oses* moldiztegi orretan argitaratu ziran.

Baita karlisten azken gerrateko (1872-1876) zenbait bertso-paper ere.

Urte auek eta Aita Arana'k idatzi zituanak, ondo uztartzen dira.

Orretzaz gañera, gerra ori bukatu berria zan 1877-1878 urteetan. Bañan baserri asko ta asko txikitu ta ondatu ondoren.

Beren baserri oiek lengo oñean jartzeko, eta sagardo onak egiten asteko ere berdin, denbora asko bearko zuten baserritarrak.

Gaia ere urte oiei dagokiena, beraz, guk uste beintzat.

Bertsoen egillea nor dan, ez da iñun ere ageri. Eta Aita Arana'k etzuan ori jakingo eta idatzi ere ez.

1. Bertso berriak ditut
Jaunari graziyak,
munduan kantatzeko
geren notiziyak;
ura kupelan preso
beterik ontziyak
alabatzera noa
dauzkaten guziyak.

2. Enpeñatu da aurten
aguaderua
urari altxatutzen
ez duen gradua;
galtzeko bildur gabe
nork bere burua,
askok edan bear dik
sagardo klarua.

3. Askok daki etzana
aurten ain eroso,
ur noblea artzeko
kupeletan preso;
oiek ibilli dira
gauetan penoso,
iñor galdu ez dedin
burutikan oso.

4. Orain esplikatzera
noa laugarrena,
sagardoa du lagun
bere amarrena;
fresko guarda dezagun
nork bere barrena,
urak badauka beti
bere aitormena.

5. Libre zan ura preso
amaikak egiñ du,
tolarean sartuta
sagardoz zikindu,
pobrearen kuartoak
balizate bildu;
ez gera engañatzen
esan nai bagindu.

6. Orra kontuan jarri
jendea aurretik:
ura sartu da lodi
goitik eta betik;
ori libratzerako
karzel oietatik,
pagatu biarko du
jendeak boltsatik.

7. Goiko kalean badet
kupela zozteko,
bakarrikan nai nuke
lenbailen saltzeko;
iñork gogorik badu
au neri artzeko (1),
ez da txit aldrebesa
errefreskatzeko.
8. Aurten egin diranak
ala duda gabe
memorirako onak
izan bear due;
nerean ala dira,
besteetan ere
ez dituzte jarriko
biyotzak alegre.
9. Edari bendito au,
banoa aстера,
ederki korritua
batetik bestera;
iñork pensatzen badu
zer dan ikustera,
atozte igandean
errefreskatzera.

(1) Bertso-paperak: *neri*.

10. Orain ditxa bat ona
bada kupeletan:
alkate bearrik ez
gaubaz errondetan,
gizonak zuzen pasa
zubi-barandetan,
buruko miñikan ez
bigaramonetan.

11. Gustatzen bazatzute
nere edariya,
txit aplakatuko du
indar geiegiya;
beste jeneroz ere
bada eroriya,
denboraz ezarriko
diyo memoriya (2).

12. Sagardo-egille ta
ardo-mezklanteak
badakite zer moduz
ibilli guanteak,
urari nastutzeko
gauza ingridenteak,
burutik galdutzeko
supizienteak.

(2) Bertso-paperak: *diyo moriya*.

13. Trabajatzen digute
likoristak ere:
espiritu piska bat
ura guztiz trebe;
komerzioan beti
segurutik daude,
bañan ezin konpondu
gauza urik gabe.

14. Bada, nere kristabak,
izan arren pobre,
ez da asko gelditzen
ezagutu gabe;
gure ura ez degu
pagatuta libre,
kausan eroria da
aurtengoan sobre.

15. Orra egiaz esan
oraingo bertsoak,
baliosoak dira
orien pausoak;
sartu dituztelako
kupelan presoak,
asko sufritu dute
errotari gaixoak.

16. Dira amasei bertso
gure izenean,
ez ni Joan kantatzen
izan ez bazian (3);
iñor inkomodatzen
bada konpañian,
kandela tiratzea
dauka konpadrian.

(3) Bertso-paperak: *izan ezbaziran*.

BERTSO BERRIAK (SAGARDOARENAK)

Amabi bertso auk, Aita Jose Inazio Arana zanaren bildumatik ditugu.

Eskuz idatzita daude. Bañan bertsoen ondolik onela dio: *Donostiyan: - Juan Osesen moldizteguian.*

Bertso-paper baten kopia degu, beraz, bateredudarik gabe.

Or goien ezarri ditugun bi izenburu oiek ere, Aita Arana'ren bildumatik artuta daude. Lenengoa, bertso-paperarena izango da; bigarrena, kopiatzalleak erantsia.

Damurik, egillearen izenik etzaigu esaten. Ezta bertsoak jarri ziran urterik ere.

Laugarren bertsoak, «sagardoa amasei kuartoan asi dala» esaten digu; «basoko txanponian» alegia. Bearbada, bertso auk noizkoak diran, ortik atera zitekean.

Bañan ez gera argibide orren billa batere saiatu, denbora asko eramango liguke ta.

Donostia'n oso sagardo txarrak saltzen dirala eta bertsolaria oso asarre agertzen zaigu. Ori da bertso auen gaia.

Lendabiziko bertsoan, zazpigarren lerroan, itz bat illun xamar dago Aita Arana'ren bilduman. Erdiko letra bat ezin irakurri eta itza ezin osatu. Bearbada *frioleran* esan naiko du. Bañan duda egin diteke. Orregatik, ez gera utsune ori betetzen ausartu.

1. Orra bertso berriak
eusker a garbiyan,
zer pasatutzen zaigun
guri Donostiya'n.
Ura saltzen digute
sagardoteriyan,
ez fio... lera n ere,
preziyo aundiyan,
era n genezakenak
merke iturriyan.
2. Donostiya'ko ur gezak
ditut urrikari:
kulparik gabetanik
noiznai preso jarri.
Gero andikan saldu
jende tontuari,
ez gera ibilliko
altxa ta erori,
boltsak ezin beterik
or dabilta larri.

3. Gure gazte denboran
ziran sagarduak,
naiz geiago mozkortu,
indar aundikuak.
Estimatu litezke
oraiñ alakuak,
baño saltzen dituzte
pitar-modukuak,
tratalariyak daude
maliziatuak.

4. Sagardua asi dala
amasei kuartuan,
basoko txanponian
preziyo klaruan.
Kuadrilla juaten gera
ona dalakuan,
kanporako zalia
probatutakuan,
eserita egon gabe
luzaro bankuan.

5. Sagar-tratalariyak
dabiltza eroso,
gu, eraten degunak,
oiekin penoso.
Ura sartzen digute
kupeletan preso,
lenago oker egiña
dalako akaso,
orrela kulpa badu
gatzelura jaso.

6. Aurten esperatzen zan
sagarra gogotik,
gutxi dala diyote
loretubagatik.
Ez dirade asiko
preziyo bajutik,
alegiña saiatu
nor bere aldetik,
ardua merke bada
ez diyo inportik.
7. Aizu, tratalariya:
kontubak atera,
utzi gabetanikan
anima galtzera.
Abiyatu zindezke
konfesatutzera,
gero kotxian sartu ta
enterratutzera,
dirubak utzi eta
juan bearra zera.
8. Karga bat sagarrekiñ
iru karga erari,
baliyatzen dirala
gauzak badiruri.
Preziyua eragiten
diyote urari,
etxera karriatu
diruba ugari,
ez dira urrikitzen
jende pobriari.

9. Emen egiñagatik
dirubaren jabe,
eramango zaituzte
sentidurik gabe.
Geldituko zerade
gu bezela pobre,
munduban daudenentzat
izango da obe,
aixa egingo dira
interesen jabe.
10. Pena aundiya izango
dezute iltzia,
interesak egiñ ta
munduban uztia.
Iguale konparatzen det
batekiñ bestia,
ajola gabe dago
ez duben tristia,
denbora dezun arte
akorda zaitia.
11. Kupelaren aurrian
dan tabernariya,
zenbait personarekin
det urrikariya.
Irukitzen ez badu
ona memoriya,
satisfaziyua edo
bestela guardiya,
eztu etxeratuko
sagardo-sariya.

12. Orra amabi bertso
Donostiya'rako,
sagar-tratalariyen
erreparorako.
Diruba nai dubenak
obra ona geroko,
limurtuko bagindu
beste baterako,
afizionatubak
geok geralako.

BERTSO BERRI-BERRIAK
BERGARA'N JARRIAK
MILLA ZORTZIREUN ETA
LAROGEI TA AMABIGARREN URTEAN

Amabi bertso ditu urrengo sail onek. Nun eta noiz jarriak diran, izenburuak adierazten digu: Bergara'n, 1892 urtean.

Bazkari baten berri ematen digute bertso auek.

Inazio izeneko batek urrutirako asmoak ditu; eta, joan aurretik, bere lagunak gonbira-tzen ditu: zopa, txipilloi, langosta, txanpañ, pat-tarra, zernai. Bazkari ona, beraz.

Bertsoak baño askozaz ere ohea. Oso zalla ere ez da. Oso kaxkarrak baitira. Ez puntu zuzenik, ez neurrik, ez gatzik.

Amaikagarren bertsoan, egilleak berak aitortzen du ori.

Bere izenik ez du esaten. Bañan bertsolari ja-torra ez da eta konpromisoz-edo jarritako bertsoak izango ditu.

Arrigarriena, moldiztegiaren izena da: *London: Tip. Oop. Flan. Flin.* Londres'en argitaratutako bertso-papera, beraz.

Bertso-paper ori, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'tik, D'Abbadie zanaren bildumatik degu, andik onera mikrofilmez bialdua. Baita Oxford'tik ere, *Bodleyan Library*'tik.

1. Bertsuak asko dira
txik ondo jarriak,
baña ez sekula
orren egokiak;
lagunak asko dira
Bergara'ko errian,
baña ez sekula
orrelako neurrian.

2. Gaurko egunian asi da,
bai, Inazio guria,
lagunak despeditzen
konsuelo gabia;
berak etzekien nola
guri ematia gusto,
lagunak konbidatzen
ezta ibili justu.

3. Hotel eder bat bada
Bergara'ko kalia,
nun eman diguten
bazkari izugarria:
zoparekin asi ta
bazan an gauzia,
txipilloi ederrak eta
langosta gorria.

4. Postrek ateratzian
agertu zan txanpain,
kantu ederrekin
genden gu oso apain;
bestela galde zagun
zenbait zeuan maian,
sabela bete eta
sobratuak zian.

5. Indar asko zuen,
bai, erari orrek,
zergatikan jendia
dantzan ipiñi zuen;
txamarrak kendu eta
kalian zan bulla,
erria piztutzeko (1)
dagualako illa.

(1) Bertso-paperak: *erriz*.

6. Gabrielelek soñua
asi zuanian,
neskatxa guztiak
arrimatu zian;
aintxe bazian politik
dudarikan gabe,
bata zan Isidra,
bestia Salome.

7. Dantzan asko eginda
zeuden ankan torpe,
zergatikan eran zan
likoria fuerte;
neskak esaten zuten:
«Biziko gera, Jose,
ametikan aurrera
betik orrelaxe».

8. Lagun batek izena du
Manueltxo guria,
eroziñek eztu ateratzen
onen izardia;
eztet dantzan esaten
ezpada lanian,
eta bueltak ematen
beti toki batian.

9. Agur, Don Inazio,
gure lagun maitia,
pena ematen digu
zu kanpora joatiak;
urruti egon arren
zu zuazen erria,
esperantza badegu
zu ez aztutzia.
10. Poz aundia izango da
bai gure biotzian,
amen ikustean
zatozela bueltan;
zergatik lagun onak
aztutzen eztian,
eta askoz geiago
prueba au ematian.
11. Gu sekula ez izanda
bertsolari aundik,
amen gertatzen dira
difikultade aundik;
orain asten gera
lenbiziko aldiz,
eta segurua izango da
ez jartzia berriz.

12. Emen ematen diogu
asi akabera,
zergatikan dua
denbora aurrera;
adios egiten diogu
jente guztiari,
eta partikularmente
gure ezaunari.

BERTSO BERRIAK
«BERTSO BERRI BATZUBEK NAI
NITUZKE KANTA...»

Jateak ere badu ondoren nai ta nai-ezko beste lan bat. Zeregin orri jarritako bertsoak ditugu oraingo auek. Bertso usaidunak, beraz.

Bi tokitan arkitu ditugu: Donostia'n, Gregorio Mujika zanaren bilduman, eta Oxford'ko *Bodleyan Library*'n. Biak argitaraldi bera dira: *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún* moldiztegitik ateratako bertso-papera.

Bañan sei bertso bakarrik izanik, ez dute papera betetzen. Beste sail baten ondoren daude. *Guardasol konpontzalle bati* izeneko saila goien; onako au bean.

Egillearen izenik ez da esaten. Jarri ziran urtea ere ez da ageri.

Bertso-paperak, lenengo bertsoaren lenengo lerroan, onela dio: *Bertso batzubek*. Gure iritzirako, moldiztegiaren utsegitez-edo, *berri* falta da or erdian, eta itz ori erantsi egin degu.

1. Bertso berri batzuben
nai nituzke kanta,
gustatzen zaionikan
iñor baldiñ bada;
istoriya guziya
izango da kaka,
nola egin biar degun
guziyak banaka.

2. Naiz aberatsa izan,
igual dala pobre,
kaka egiñ bearko degu
egoteko libre;
medikuak daduka
sentenziya emana:
ilko dala bertatik
kaka eit'eztubena.

3. Kaballero aundi (y) oik
eziñ dute egiñ,
egiten dena ere
gutxi eta ziriñ;
jan beza bildur gabe
artua ta babia,
ordun egingo dute
mokordo lodia.

4. Baserri baten onduan
mokordo bat nuan ikusi,
luzian bazituben
zazpi arra t'erdi;
uraxen mokordua
gutziz atsegiña,
luzia ta loriya,
gustora egiña.

5. Ipurtxulua itxirik
amar egunian,
zezenak izan ziran
iriki zanian;
salto ta brinko zebiltzan
kuarto barrenian,
ikusi zutelako
kaka oriñalian.

6. Orra seigarren bertsua
bertatik kantatu,
eta beste aldera
jendia dibertitu;
nai dubenak papera
segituban artu,
bertan bosna zentimo
geonek saltze'itugu.

* * * * *

Bertso auen doña, Gernika'ko Julio Bare-
ño jaunak bialdu zigun, 1958-XI-24'an:



Doñuarekin batera, sail ontako iru bertso bialdu zizkigun: 2, 4 eta 3'garrena, zenbait al-deketarekin (1).

Baita beste bertso au ere:

Geuk ikusi genduan
neskatxak egiña:
puntara txorrotx enda
ondora berdiña.
Pixau genduan enda
zazpi libra egiña,
axe bai mokordua
gustora egiña.

Bertso oiek nundik zituan, onela adierazten zigun Bareño jaunak:

«Lenenguak (bigarren, laugarrena eta berri ori, alegia), Eibartik-edo, orain berrogei urte inguru, langilla batek ekarriak dira.

Bigarrenak, barriz (irugarrena, alegia), ementxe Gernika'n batuak, irurogei urtedun gizon baten aotik».

(1) Aldaketak: 2/1: Naiz aberats, naiz probe; 2/2: naiz zar enda naiz gazte; 2/3: kaka ein biarko dute; 2/4: bizi nai badute; 2/5: Jaungoikuak berak dauka; 2/6: sententzia emonda; 2/8: kaka eiten eztuena; 3/1: Señorito andiek; 3/3: egiten duena ere; 3/4: gitxi eta zirin; 3/7: orduen egingo deu; 4/2: mokordua nuan ikusi; 4/3: luzera bai zituan; 4/5: ura bai mokordua.

* * * * *

Tolosa'ko Estanislao Urruzola'ren kuaderno batean, eskuz idatzita, iru bertso agertu dira:

Sail ontako irugarrena, aldaketa auekin: 3/1: Kaballero aundiyak; 3/3: egin dute baño; 3/5: jan zazu ardura gabe; 3/6: arto ta babia; 3/7: orduan egingo dezu.

Bareño jaunak bialdutako beste ori, aldaketa auekin: 1/ Lenago ikusi nuen; 3: puntara zorrotza eta; 5: pixatu nuen eta; 7: uraxe bai mokordo; 8: guztiz ondo egiña.

Eta beste bertso au ere bai:

Neska bat ikusi nun
erotu bearrian,
ikusi zualako
kaka oriñalian;
kaka ta kakarantza,
puzkar da tormentu,
ipurdiko zuloak
iru elementu.

«AGURE ZAR GOTOSO...»

Oso bertso usaidunak ditugu onako zortzi auek ere; bañan ez loreak zabalduzen duten goxo ori...

Tolosa'ko Jesus Elosegi zanaren kuaderno batetik artuak ditugu. Berak nundik dituan, onela adierazten du: «Nere aitaren kuadernotik, 1894».

Ez du esan nai, gure iritzirako beintzat, bertso auek urte orretan jarriak diranik; aitaren kuaderno ori urte orretakoa-edo zala baizik, edo-ta bertso auek orduan kopiatu edo jaso egin zirala.

Egillearen izenik ez da iñun esaten. Eta ori ikasteko biderik ageri ere ez.

Bertso auen beste kopia bat, Donostia'n jaso genduan, Aingeru Irigaray'ren eskutik. Bañan zazpi bertso; laugarrenaren azken erdia eta bostgarrenaren lenengo erdia, falta.

Jesus Elozegi'ren kuadernoak doña ere badu. Ori jartzen degu aurretik; bertsoak ondoren:



1. Agure zar gotoso
triste elbarriak,
bear dizuet kontatu
gauz arrigarriak;
nik pasatzen ditutan
neke ta larriak,
ez ditu, ez, ematen
noski kakeriak.

2. Naiz dala zesto eta
orobat ballesta,
ez da, nere jendeak,
umeen josteta;
gure gauzen parerik
inun ere ezta,
gaur zelebratu degu
gure kaka-festa.

3. Ez dakit ote naizen
zaldun edo sota,
lastoz egiña edo
puztutako bota;
deabru zarrak nauka
ipurdian jota,
nere barrunen bada
arroba bi gota.

4. Itxirik ipurdia
amar egunian,
zezenak izan dira
iriki danian;
nere illobak pozaz
txoratu nayian,
ikusi zutelako
kaka oriñalian (1).
5. Lau illobatxo gazte
nik nere etxian,
neskatxa mutillakin
zeuden sukaldian;
salto, brinko ta dantza
guztiak batian,
etziraden gelditu
kaka oztu artian.
6. Azkenik albistia
ziraden ekarri,
farra arpegietan
zutela ageri:
—Ea, bada, osaba,
alegratu bedi,
kaka ederra egin du,
gogor eta lodi.

(1) Bertso au eta aurreko saillaren bostgarrena, berdintsuak dira.

7. Arnaska eta puzkar
uraxen bai lana,
libratu arteraño
preso zegoana!
Andik etorriko da
nere osasuna,
kaka egin ezker
det obetasuna.

8. Iñork artutzen badu
kanta oietzaz nazka,
bere belarri fiñak
itxitzia dazka;
egunian lau bider,
orduban presaka,
egin bitza neretzat
ogei libra kaka.

Aingeru Irigaray'ren kopiaren aldaketak: 2/7: bart zelebratu degu; 2/8: nere kaka-festa; 3/7: nere barrenen bada; 5/7: ez dirade gelditu; 6/7: kaka eder egin du; 7/1: Arnaska eta putzka; 8/2: kanta ortaz nazka.

KAKA ZARRARENAK

Bertso edo kopia auek, goiko izenburu orrekin, aurreko bi sailen gaia dute.

Tolosa'n arkitu genituan, eskuz idatzita, Farkundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman.

Noiz jarri ziran ez da esaten, eta egillearen izenik ere ez noski.

Bañan sail ontako laugarren kopia eta aurrekoaren laugarren bertsoaren bigarren erdia, berdintsuak dira.

1. Kakagilliaz nator
Errenteria'tik,
lau kuarto eman nitun
egitiagatik.

CORO

*Rau, rau, rakataplau,
au dek umoria,
utzi alde batera
euskaldun jendia.*

2. Orra, bada, osaba,
alegratu bedi:
kaka galanki in det
eder eta lodi
Rau, rau...

3. Gorputzetik libratzen
asi naiz bastante:
oietik jeiki eta
oriñala bete.
Rau, rau...

4. Gure gaztiak pozak
erotu nayian,
ikusit dutelako
kaka oriñalian.
Rau, rau...

5. Iñor egiten bada
itz oiekin nazka,
bere belarri biyak
itxitzia dauzka.
Rau, rau...

6. Jendiak egin arren
irri-arra farra,
fuera mokordua ta
biba kaka zarra.
Rau, rau...

«MATSAREN ZAÑETIK DATOR...»

Kanta au, Donostia'n agertu da, Bonaparte' ren paperetan, eskuz idatzita. Noizkoa dan ez da esaten; eta egillea nor dan ere ez.

Oso bertso bereziak ditugu metrikaren alde-tik: 2-4-6-8'gn lerroak puntu berdiña dute. Bai 1-3 eta 5-7'gn lerroak ere. Eta, azkenik, *estribillo* edo kanta-arte bat, bertso guzien ondoren kantatzeko.

Bañan gauzarik arrigarriena auxe da, guk uste: 2-4-6-8'gn lerroak bertso guzietan berdi-ñak dirala, barruko *estribillo* bat balitz bezela. Orregatik, *cursivaz* idazten ditugu.

Era ontako bertsoa, ez da bertsolari baten aotik sortua izango.

Gure iritzirako, bertso auek gizon eskolatu-ren batek jarriak dira. Bañan oso erri-zalea eta euskal jendearen gustoa egiten zekiana izango zan. Eta ala, doñuak agertzerakoan ikusiko de-gunez, erriak bertso auek ikasi eta asko kantatu izan ditu; eta gaur ere ez ditu aztuta.

1. Matsaren zañetik dator
zumu ain gozoa,
edatera pozez nator
txopin bat osoa;
indazu ez nadien il
plei plei beterik basoa,
ta jarriko zait pil pil pil
bai biotz gaixoa.
Nik zuri, zuek neri,
agur egiñaz alkarri,
basoa txit garbi
bear degu jarri.

2. Maitagarria da anitz
zumu ain gozoa;
zortzi koartean balitz
txopin bat osoa,
edan geneike sarri
plei plei beterik basoa,
farraz kil kil dedin jarri
bai biotz gaixoa.
Nik zuri...

3. Noek sortu izan eban
zumu ain gozoa,
baita ere aisa edan
txopin bat osoa,
berak nai zuan bezala
plei plei beterik basoa;
pozkidatzen da ala
bai biotz gaixoa.
Nik zuri...

4. Aren semeak ere nai
zumu ain gozoa,
nafar gorri onetik bai
txopin bat osoa;
ikusi orduko nonbait
plei plei beterik basoa,
dantzan abiatutzen zait
bai biotz gaixoa.
Nik zuri...
5. Sortua ez degu damu
zumu ain gozoa,
asi aldian bagendu
txopin bat osoa;
betor bada ber-bertatik
plei plei beterik basoa,
pozez saltoka dabilkit
bai biotz gaixoa.
Nik zuri...
6. Jaungoikoak digula beti
zumu ain gozoa,
aldian bein ta txit sarri
txopin bat osoa;
glin glin glin dezagun egin
plei plei beterik basoa,
igaritan jarri dedin
bai biotz gaixoa.
Nik zuri...

* * * * *

Doñu au, Azkue'k Elizondo'n jaso zuan,
Leonzio Iturralde'ren aotik. Bañan etzuan bere
Cancionero popular vasco'n argitaratu. Doñurik
osoena degu, onek bertso-lerro guziak baititu,
naiz-ta aldaketa bat edo beste sartu, eta besteak
ori egiten ez baitute.

Matsaren zainetik dator
zumoaren gozoa,
edatera pozez nator
txopin bat osoa.
In zazu ez nadien il
plei plei beterik basoa,
eta jarriko zait pil pil pil
bai biotz gaixoa.
Zuk neri, nik zuri,
agur egiñaz alkarri,
basoa txit garbi
bear degu jarri.





* * * * *

Doñu eta bertso auek, Aita Donosti'ren
Euskel eres sorta kanta-bildumatik artuak ditu-

gu. Naparroa'ko Bera'n bildu zituan berak.
Emen ere, bertsoak amabi lerro ditu:

The image shows a musical score for a song in 2/3 time, consisting of ten staves of notation. The first staff begins with a treble clef and a 2/3 time signature. The melody is written in a single line, with notes and rests. The second staff continues the melody. The third staff continues the melody. The fourth staff continues the melody. The fifth staff continues the melody. The sixth staff continues the melody. The seventh staff continues the melody. The eighth staff continues the melody. The ninth staff continues the melody. The tenth staff continues the melody.



* * * * *

Urrengo beste bertso au, Orio'n jaso zuan
Azkue'k, Josefa Treku'ren aotik, bañan argitara
gabe utzi. Doñu onek, amaika bertso-lerro ditu:

Matsaren zainetikan
datorren zumoa,
iru kuarto ta erdian
txopin bat osoa.
beterik balego basoa,
orrek alegratzen dit
nere biotz gaisoa.
Nik zuri, zuk neri
agur eginez alkarri,
basoa txit garbi
bear degu jarri.





* * * * *

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco'n*,
127 zenbakian, doñu eta bertso auek agertzen
dizkigu, Lenitz'ko Aozaratza'n jasoak:



Magatsaren zainetik datorren
zumai gozoa,
edango neukeala
pitxar bat osoa,
Zuk niri, nik zuri
agur eginaz alkarri,
basoa txit garbi
bear degu jarri.

Ondoren, onako adierazpen auek egiten ditu:

«Canción muy en boga en B y G. Es curioso el vocablo magats «uva», que acaso sea la forma original de mahats, mâts que se dice hoy en varios dialectos. En Altzola (Elgoibar, G) me cantaron: Maratsaren zainetik.

...Es costumbre que esto canten dos bebedores, de pie, mirándose y vaso en mano. Al llegar al pasaje zuk niri, nik zuri, extienden el brazo derecho, chocan los vasos al cantar agur egiñaz alkarri y vacían su contenido al terminar bear degu jarri.

La frase agur egin «saludar» ¿indica que esta canción procede del otro lado del Bidasoa (donde hoy se oye), o más bien que un tiempo se decía el vocablo agur en ese sentido a este otro lado?».

* * * * *

Beste doñu eta bertso auek, Ondarrabia'n jaso zituan Azkue'k, bañan argitaratu gabe utzi:





Matsaren zainetik dator
zumuaren gozoa,
zortzi kuarto t'erdirekin
baso bat osoa.
Zuk neri, nik zuri
agur eginez alkarri,
basoa txit garbi
bear degu jarri.

* * * * *

Beste aukerak Oiartzun'en bildu zituan Az-
kue'k, bañan argitaratu ez:



Matsaren zainetik dator
zumoaren gozoa,
argatik edaten degu
ardoa onlakoia.
Zuk neri, nik zuri
agur eginez alkarri,
basoak txit garbi
bear ditugu jarri.

* * * * *

Azkue'k Elgoibar'ko Alzola'n, Iriondo abi-
zeneko bati jasoak, eta argitaratu gabe utziak,
onako auek:



* * * * *

Bengoa'k *Colección de Cantos vascos, cuaderno 1.º* liburuxkan:

The musical score consists of ten staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and a 2/4 time signature. The melody starts with a quarter note, followed by a triplet of eighth notes, and continues with a series of eighth and quarter notes. The subsequent staves continue the melody, featuring various rhythmic patterns such as eighth notes, quarter notes, and dotted notes. There are several triplet markings (indicated by a '3' above a bracket) throughout the piece. The score concludes with a double bar line.

Matsaren orpotik dator
mama gozua, mama gozua.
Edango neukela
beterik basua,
klin!,
beterik basua.
Nik zuri, zuk neri,
agur egiñaz alkarri,
basua txit garbi
biarko da ipiñi.

* * * * *

Bertso berri ta kanta zar liburuxkak, doñu-
rik ez eta bertsoa bakarrik dakar, eta Bengoa'k
bezela ekarri ere. Bañan azkeneko lau lerroak bi
aldiz kantatu gabe, bigarrenko aldian onela esa-
ten dala dio:

Nik zuri, zuk neri,
biok alkarraz bost irri,
gaur ez jat komeni
negarrik neroni!

«AI AU ERARI GOZUA...»

Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza'* ren kuadernoan edo eskuz idatzitako bilduman, onako bost bertso auek arkitu ditugu:

1. Ai au erari gozua
zerutik jetxitakua!
Zenbat eta eranago
orduanda naiago;
jakin banuen lenago
erango nuen geiago.

2. Ardo pikaro gaiztua.
ik galdu didak burua.
Exerita ezin egon,
belauniko ezin jarri,
neri zer egin ote zait?
Txutik ibiltzen aztu zait.

3. –Nere arreba Juana.
–Zer nai dezu, anaia jauna?
–Ni iltzen naizenian,
ez egin negarrikan,
ez jantzi lutorikan;
zagi bat ardo buruan,
edan dezagun zeruan.

4. –Aizan, arreba Juana.
–Zer nai dezu, anaia jauna?
–Nere sepulturarako
autsak ere ardoz
erragadiatu;
Jaungoikoak pagatuko zaitu.

5. *Dominus vobiscum* kantatzian,
ez busti isoporik urian;
ardotan sar ezazu,
an bertan tenpla zazu,
illian bein bizian
zalia naizen bezela.

Lenengo bertsoak zer ikusi aundia du, Xabier Munibe'ren *El borracho burlado* antzerkian agertzen dan bertso batekin. Ikus: *Auspoa* 48, 88 orri-aldean.

* * * * *

Gure Herria aldizkarian, 1924'ko Otsaillean, lau doñu eta bertso aukeratu zituzten *Nehor* eta *D. Dufau*'k:



1. Oi! Zer egin ote zaut niri?
 Bidean ibiltzen ahortzi!...
 Ez dut pausurik egiten,
 non ez naizen erortzen!...
 Flako dut arras bihotza, (1)
 indazue arno hotza (2).

(1) Bestek: *Triste dut hainitz bihotza. (Gure Herria'ren oarra).*

(2) Bestek: *Eman edaterat arno hotza. (id.)*

2. –Ene arreba Juana!...
 –Badantzut, anaia jauna.
 –Ni hiltzen naizenean,
 ez egin nigarrikan,
 ez ekar dolurikan! (3)
 Emazu flaskua burdian, (4)
 edateko pidaia hartan...
3. Ni hiltzen naizenean, (5)
 ene ehortz egunean,
 ene adixkideak,
 bil zaitezte guziak,
 eta mintza ahapetik,
 eian baden zeruan arn'onik?
4. *Libera me* kantatzean,
 ez busti isopa urean!
 Arnoan busti zazu,
 han ongi trenpa zazu;
 segur naiz nahiko dudala
 hilean, bizian bezala...

(3) Lerro au, laugarrenaren doña errepikatuz kantatzen omen da. (*Id.*)

(4) Bestek: *Botoila bat burukilan, edan dezadan zeruetan.* (*Id.*)

(5) Irugarren bertso au, ez omen da beste nunai kantatzen; bañan bai Sara'n. (*Id.*)

Lendabiziko bertsoa, Xabier Munibe'ren *El borracho burlado* antzerkiak ere badu.

Eta 1, 2 ta 4'garren bertsoak, emen bezelatsu, moldiztegi-utsegite bat edo beste izan ezik alegia, beste liburu ontan ere agertu ziran: *C.A.F. Mahn: Denkmaeler der baskischen sprache, Berlin, 1857.*

* * * * *

Gure Herria aldizkari orrek berak, 1924'eko Apirillean, onako bost bertso aukeratu zituan:

1. Ai zein edari gozua,
zerutik jatxitakua!
Zenbat eta geiago,
anbat eta naiago!
Zer egingo ote dit barrenen!
Obe det sartu lenbailen!

2. Baso onetan ikustian,
poz artzen det biotzian.
Baldin or ikusirik
banago txoraturik,
zer egingo ez det barrenen?
Sar akit bada lenbailen.

3. Ai neri zer egin ote zat!
Oñez ibiltzen aztu zat!
Burua jaso ezin det,
lurra igaro ezin det;
illun det biotza guziz;
edan zagun bada berriz!

4. Galdu dirak neri burua,
ardo zitalki gaiztua!
Edan det txit gogotik
ardo sendo onetik;
ai jakin banu lenago!
Edango nuan geiago...

5. Edazu kontuz ardua,
naiz zarra ta naiz gozua;
izanik ain gauz ona,
daki galtzen gizona;
bañan edanikan neurriz,
piztutzen du illa berriz.

* * * * *

Gipuzkoa'ko Diputazioan, Bonaparte'ren paperetan, lenengo bertsoa bere doñuarekin agertu da. Bertsoa, *El borracho burlado* ortan datorren bezela. Doñua, berriz, onela:



Ai, niri zer egin ote zat!
Oñez ibiltan aztu zat,
burua jaso ezin det,
lurra ediro ezin det,
triste dut biotza guztiz,
edan dezadan ea berriz.

* * * * *


Euskal-Erria aldizkarian, XXI'garren alean,
1889 urtean, bertso au agertu zan:

—Nere arreba Kattaliñ,
arnuak gizona pizten diñ;
ni iltzen naizanian,
ez isopurik busti urian;
arnuan busti zazu,
an ongi trenpa zazu;
illian, biziyan bezala,
segur da naikoren dudala.

* * * * *

Urrengo doñu eta bertso auek, Azkue'k bere
Cancionero popular vasco'n argitaratu zituan,
126 zenbakian, Elizondo'ko Paz Salaburu'ren
aotik jasota. Bigarren bertsoa esan egin omen
zion; kantatu gabe alegia:





Libera me, Domine kantatzean,
ez busti ixaporik urean,
arnoan busti zazu,
han ongi sartu zazu:
hori da nahiko dudana,
hilean bizian bezala.

—O nere arreba Juana!
—Zer duzu, anaia jauna?
—Ni iltzen naizenean,
ez egin nigarrikan,
ez artu lutorikan,
xato bat arno buruan,
edan dezagun zeruan.

* * * * *

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco* ortan, 132 zenbakian, doñu eta bertso auek argitarara eman zituan, Isturitz'eko Jean Montalibet'eri jasota:



Ni hiltzen nizanean,
tralalara lalara lala,
 ni hiltzen nizanean,
 ez ehortz elizan (*bis*);

bainan ehortz nezazue,
tralalara lalara lala,
 bainan ehortz nezazue
 xai zola batean (*bis*);
 eta buruz barrikara
tralalara lalara lala,
 eta buruz barrikara,
 ahoz dutxulura (*bis*).

* * * * *

Azkue'ren esku-idatzietan, Zumai'ko Artadi'n Frantziska Erkizia'ri jasota, bañan argitara eman gabeak, doñu eta bertso auek arkitu ditugu:





Libera me, Domine kantatu
amen erresponditu;
ni iltzen naizenean
ez egin negarrik,
ez jantzi lutorik;
zaragi bat ardo buruan,
edan dezagun zeruan.

* * * * *

Aita Donosti'k, Sara'n bildu zuan bertso au,
eta bere *Euskal eres sorta* kanta-bilduman argi-
taratu:





Libera me kantatzian,
isopa ez busti urian;
arnoan busti zazu,
ongi trenpa zazu;
segur naiz naiko dudala
ilian bizian bezala.

* * * * *

Ikusten danez, ainbeste tokitan bildua izateko, oso ezaguna izan da EuskalERRI guzian ardo-kanta au.

Damurik, iñun ere etzaigu osorik azaldu. Bertso geiago ere izango zituan kanta onek; bañan banaka batzuk besterik ez dira gure eskue-taraño iritxi.

Esan degunez, Xabier Munibe'k *El borracho burlado* antzerkian, auetako bi bertso ditu. Bearbada, gure iritzirako beintzat, ez dira Munibe'k asmatu eta erriak ikasiak; bai, ordea, erriak asmatu eta Munibe'k erriaren aotik ar-tuak. Bañan seguru ezin jakin.

Gure iritzia egia balitz, Munibe'ren antzerki ori 1764 urtean argitaratu baitzan, kanta au XVIII'garren mendekoa genduke.

Gureganaño ain zatitua eta batetik bestera ain aldatua iritxi izana ere, orretxegatik izan ditekete: oso zarra dalako.


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).

24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsularia. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaa-rra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia. (*Aitua*).

- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunak bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria. (*Aitua*).
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeak. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).

112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: ZapiRAIN anaiak.
126. *A. Zavala*: Uste ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. ZapiRAIN, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).



AUSPOA
LIBURUTEGIA



ANTONIO ZAVALA

JAN-EDANAREN BERTSOAK

(II)

JAN-EDANAREN BERTSOAK

(II)

AUSPOA LIBURUTEGIA

(155)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

JAN-EDANAREN
BERTSOAK

(II)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1982

Azala: Inazio Zuloaga'ren marrazki-lana,
Donostia'ko San Telmo Museoan.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzalle: Oena - Lasarte

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-097-7

Depósito Legal: S. S. 136 82

Abril 1982

ARKIBIDEA

Arduaren birtutiak	9
Arduaren ipuiak	15
Andre eta gizon mozkorrak	21
Ardo gorri naparra	25
«Andre bat ikusi det...»	37
«Ardaotxo baltza, zer dakak ik?»	47
«Bein tabernan ...»	61
Bertso Berriak: «Frantzes euskaldun bat...»	67
Kanta zarrak	71
«Mutill gazte batzuek...»	75
«San Migel aurreko...»	79
Bertso Berriak: «Kanta-papera saltzen dalako...» ..	83
Tripaundi ta bere lagunak sagardotegian	91
Bertso Berriak (Atia ta katua)	95
Mozkorrarenak Bertso Berriak	103
Bertso Berriak Moxkorrari jarriak	109
«Goizean sartu eta...»	117
Ate bigun bateri	121
Esnedun bateri	125
Lagun artean egindako sagarduaren gertaerak	129
Zenbait bertso	133

ARDUAREN BIRTUTIAK

Amabost bertso auek, Gregorio Mujika zarenaren bildumatik artuak ditugu.

Moldiztegiaren izena onela duan bertso-paper bat da: *Tolosa: Imp. de E. López.*

Urterik ez du bertso-paper onek esaten. Banañan moldiztegi ori, 1877'etik 1929'ra ezagutu zan *E. López*'en izenarekin. Bitarte ortan jarritako bertsoak izango dira, beraz.

Beste argibide bat zortzigarren bertsoak ematen digu. Ardoak barbero-premiak aienatzen dituala esaten du. Alegia, gaur *medikua* diogun bezela, *barberoa* esaten zan denborako bertsoak. Antziñakoak, beraz; 1877 urtetik urbillagoak, seguru aski, 1929'etik baño.

Egillearen izenik ez da iñun ageri. Eta ori somatzeko biderik ere, ez degu guk beintzat ikusten.

Bigarren bertsoa eta Aita Meagher'en beste bertso bat, oso antzekoak edo ia berdiñak dira.

1. Matsaren emakaia
pozka osua,
almen pare gabia
txitez doatsua;
beltz gorria kolorez,
indarrez garbua,
adimentuz argia,
auxe da ardua.

2. Gizona ardo gabe
dago erdi illa,
mar-mar dabilkio tripa
arduaren billa;
baña ondo eran da
ardo beltz ongiña,
gizon bakar au bada
amarrentzat diña.

3. Soldaduak gerran da
baita gudan ere,
neke arrisku aundian
bizitzen dirade;
gorri beltzetik ondo
eraten badebe,
ausardia berekin
beti lagun debe.

4. Ardua ez dalarik
eztiki gozua,
beragana darama
nere gogo osua;
naigaben izumena,
loaren lazua,
zugandik iges dabil
amore falsua.

5. Urtiak ere ez diote
indarra kendutzen,
zenbaiten kariñua
dubenak aldatzen;
engañuen zastadak
balira sentitzen,
arduak bakarrik daki
osoro sendatzen.

6. Lore-pilla biziak
ta edertasunak
ajatzen dira danak
pasarik egunak,
berenez diralako
txantxako bigunak,
baña luzitzen dute
arduan egun junak.

7. Lurrin atsekabia
gogorapen txarra
gabian kendutzeko
eran ardo zarra,
lo osuan nai bada
iritxi goizera,
zeruaren pakian
arduan pensatzera.
8. Ur egosi epelak
eta iturriak
ez ditu murritutzen
nere egarriak;
obeto kendutzen du
ardo beltz gorriak,
aienatzen ditula
barbero-premiak.
9. Egiazko adiskide
ta amante leiala
aditu det txit errez
arkitzen ez dala;
baña ardo nobliaz
lagundutzen dana,
pozez bete ta laister
deskansuan dala.

10. Arduak jira dizkit
penak txit atsegiñ,
amorio-akuladak
nituanak ain miñ;
aingeru-erariak
premian on egin,
ordu illun tristiai
diela eragin.
11. Umore onez kantatu
arduen birtutiak,
prestatuz onratzeko
kofrade guztiak;
aberatsak alegre,
kontentu pobriak,
guztientzat berdiñak
arduan legiak.
12. Ardo-baporiak nola
biotzetik ala,
milla pena irten da
libratu naizana;
eskergabekeria
umiltzeko ala,
eran da berriz eran
ardu ona dala.

13. Gero soñu ta dantza
zumo gorriari,
eguzki osuaren
argi ederrari;
begira mats guzien
amoriyuari,
berriro nun dakarren
beren frutu ori.

14. Eran goizian txuritik
al dan onenetik,
arratsaldian gorritik
ona baño obetik;
ala egiten diat nik,
ik ere al badegik,
eran zak bizikaitik
ta on egingo dik.

15. Dabiltzala pitxarrak,
igual bonbillak,
zerbait gazigarri ta
bigunak opillak;
batzuek ustua ala
betiaz txopiñak,
hospitalera arte
gure azken fiñak.

ARDUAREN IPUIAK

Bertso auek izenburu orrekin, Bilbo'ko *Ibaizabal* astekarian arkitu ditugu, 59'garren zenbakian, 1903'eko Otsaillaren 15'ean.

Bertsoak nundik artu eta kopiatua dituan, oar batean esaten du *Ibaizabal*'ek:

«Paper zaar zaar artean aurkiturikoak dira. Eztakigu nok egiñak».

Guk, beintzat, duda egiten degu bertso auek bertsolariren batek jarriak izatea. Bearbada, gizon eskoladun baten lana dira. Apaizen batenaedo. Mozkorkeriaren aurka zerbait egin nai eta bertso auek paratu. Alegia, erriarengandik ez, bañan erriarentzat sortutako bertsoak.

Irakurlea bereala oartuko danez, puntuak launaka ez, bañan binaka eratuta daude. Bizkaia'n garai batean egiten zanez, beraz, oker ez bagaude beintzat. Ta bertso auek Bizkai'koak izatea, gauza garbia da, euskera angoxea baita.

1. Arduaren ipuiak
asko ta luziak,
ezin esan nezakez
nik oraiñ guziak;
orregatikan ere,
bere txit zaleak,
ara emen nolabait
onak albisteak.

2. Zeinbat gizasemekin
du burla egiten
matsaren ur beltz urak
igaz eta aurten!
«Edan ardura gabe
—dio—, merke nago,
zuen sabel barruan
ongi naiz egongo».

3. Asi eta naiago
merkeaz pozturik,
denbora gutxi barru
ongi beroturik;
ezta andik aurrera
senide pobrerik,
gaztaiña eta arto
ez gari urririk.

4. Trago baten ondoren
lastertxo bestea,
fortuna askorentzat
jarrita egotea;
jaikitzen diranentzat
dirade kontuak,
nola aurkitzen diran
belaun ta buruak.

5. Bide guziak dira
berentzat estuak,
mutillen parregarri
dijoaz gajuak;
begi gorrituekin
ekusi eziñik,
nonbait gelditu arte
lupatzen etzunik.

6. Batzuek asten dira
orduan kantatzen,
non-da baleudez legez
oe bigun baten;
besteak atzaparrak
guziz zabaldurik,
lupatza isten dabe
ongi markaturik.

7. Jira eta biraka
an jaiki eziñik,
ezta erraz aurkitzen
urde ain zikiñik;
orra zertara duan
gizonak burua,
maitetu dualako
larregi ardua.

8. Gabak asko emanda
geien-geiengan
dirade etxeratzen
ez ordu onean;
batzuek, bereala
oera sarturik,
diote ez dutela
gaitzezko katurik.

9. Beste batzuek berriz
diote pozarren:
ez diradela iñoiz
lurrera erorten;
baiña beren buruak
ongi lainotuak,
ala gaxoak daudez
ongi moskortuak.

10. Pipia aterata
ezin ondo sutu,
edo bai bereala
laster amatatu;
au da señale ona
gizonen artean,
tabernatik etxera
dijoazenean.
11. Or ta emen gelditu
pausu bakoitzean,
mormorietan jardun
bakar-bakarrean;
egia esateko
dute bai laguna,
artan asi ezker
txito ezaguna.
12. Erderazko izketa
dute txit maitea,
lotsaria bezela
euskera egitea;
itz bero bakoitzean
lurrera txistua,
ezta ez moskorraren
señale gaiztoa.

13. Ardoz bete ezker
ezta ez txatxarrik,
ez bera bildurtzeko
zenso eta zorrik;
ezpadu ere emango
tabernan pagurik,
karga du saltzaillea
guzia pozturik.

14. Zarrak aztutzen dira
beren urteakaz,
itxu eta errenak
eri guziakaz,
ixillak berriketan,
atsoak kantatzen...
Eztet nekatu gura
geiago kontatzen.

ANDRE ETA GIZON MOZKORRAK

Bertso auk, irakurleak zenbakiai begiratzen badie, irugarrenetik asten dirala ikusiko du. Ondoren, seigarrenetik bederatzigarrenera salto egin. Lau bertso falta dira, beraz: 1, 2, 7 eta 8'garrena. Zergatik ote? Bertso-paperaren beko erdia bakarrik jaso degulako. Goikoa galduta dago.

Bertso-paper ori, *Donostian: Osés-en moldizteguien* argitaratu zan. Eta gorde dan puska, Donostia'ko Juan Arbelaiz zanaren eskutik jaso genduan.

Zer izenburu izango ote zuan ere ez dakigu. Orain daukaguna, guk ezarria da. Bertso auk, lenengo emazkumezkoak eta ondoren gizonzkoak astintzen baitituzte.

Amairugarren bertsoak, itxuak paratuak dirala esaten digu. Lendik ere dakigunez, itxuak, nolabait bizimodua atera bear eta bertso-saltzalle saiatuak izan ziran garai batean. Ikus: *Auspoa*, 68-69-70.

3. Gizonak artzen badu
andrea ordia,
ez daduka munduan
trabaju txikia;
gizonak egiten badu
arto edo garia,
andriak bustiko du
ardo eztarria,
gizon zintzoarentzat
ai zein mingarria!
4. Ezin burutu leike
andre mozkorraikin,
zer ondatuko luken (1)
Jaungoikoak jakin;
adiskiratzen bada
tabernariakin,
igual juango da
oiko zapiakin,
ardoa edateko
aren baliakin.
5. Aritzaki ona dago
meza-egunean,
botilla tapatzeko
manteliña pean;
ura beteko dute
tabernen batean,
isillik edateko
oiaren aldean,
orra zer maliziak
atsoen artean.

(1) Bertso-paperak: *luke*.

6. Andre mozkorra duen
gizon gizaisoa (2),
etzenduen billatu
aiñ prenda gaiztoa;
agureak jan arren
sukaldean artoa,
andreak erango du
tabernan ardoa,
senarra gobernatzeko
zer modu bapoa!
9. Ea, neskatxa gaztiak,
pensa zazute ongi,
begira zaiozute
mutil gaztiari:
ia tabernara juaten
ote diran sarri,
kontuak aterata
baietz esan orri,
ibilli nai ezpadezu
gero farragarri.
10. Ezkontzen bazerate
mutil ordiakin,
nola bizitzen zeran
nik nai nuke jakin;
mozkortuta badator
gau eta gau erdin,
atera egingo zaitu
oietikan arin,
izotza dagoenean
eztago atsegin.

(2) Bertso-paperak: *gizaisoak*.

11. Ezin burutu leike
gizon mozkorrakin,
aserratu ezker
andre gaixoakin;
ezer esaten bazaio
arrazoiarekin,
mozkorak esango du:
«Kuidado nerekin,
gerria autsiko dizut
makilla batekin».

12. Enkargatzen zaituztet,
andre ezkonduak,
gizon mozkorrarekin
gertatutakuak,
pazien zian pasatzeko
zeuen trabajuak,
pagatuko dizute
ondo Jaungoikuak,
beste erremediorik
ez dezu gajuak.

13. Orra oraingularekin
amairu bertso berri,
itxuak paratuak
gizon mozkorrari;
libre zauten gazteak
kontuan ibilli,
orra nik nai bad... (3)
jakiñian ipiñi,
nik gezurra badiyot
galde edozeñi.

(3) Papera puskatuta dago eta ezin irakurri.

ARDO GORRI NAPARRA

Oso ardo-kanta ezaguna degu onako au. Gure errietan askotan entzun dana eta gaur egunean ere aztu ez dana.

Argitaraldirik zarrena, gure eskuetaraño irixi diranetan, Donosti'ko *Euskal-Erria* aldizkariak 1882 urtean egin zuana da.

Aurretik onako oar jakingarri au egiten du:

«La siguiente canción, de autor anónimo, muy popular así en Goyerri como en una parte de Bizcaya y la montaña de Nabarra, se halla acomodada a la música de otra canción, no menos popular, con letra castellana, que comienza: A... a... a... el vino de Navarra... el que lo tiene lo bebe...»

Oso ezaguna, beraz. Eta egillearen izenik gabea eta erderaz ere kantatzen dana. Bañan zein izkuntzetan sortua dan, guk beintzat ezin esan.

Ondoren, bertsoak ematen ditu *Euskal-Erria*'k, letra soil-soillik ordea, doñurik gabe:

Ardan gorri naparra,
ez edan neurri gabe,
ibilli, arren, polliki,
orain pentsatu ez gero,
utsegiñak zuzendu.

A, a, a,
ardan gorri naparra,
neurritz dala su-garra,
geiegian da txarra,
ardan gorri naparra.

E, e, e,
ez eran neurri gabe;
nola izan zeure jabe
urdalla egiñik labe?
Ez eran neurri gabe.

I, i, i,
ibilli, arren, polliki,
naiz andi ta naiz txiki,
begiak ondo iriki,
ibilli, arren, polliki.

O, o, o,
Orain pentsatu, ez gero,
geiegi ez jarri bero,
gizon zeran ezkerro,
orain pentsatu, ez gero.

U, u, u,
utsegiñak zuzendu,
Jainkoaz gogoratu,
alkar ondo maitatu,
utsegiñak zuzendu.

* * * * *

Poesía Euskara liburuan (*San Sebastián, 1896, Biblioteca selecta de autores vascongados, prólogo de Benito Jamar*), bertso aukerak argitaratu ziran. Bañan *Euskal-Erria*'n bezelaxe.

Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren kuadernoan ere arkitu ditugu, eskuz idatzita. Ontan ere, *Euskal-Erria*'n bezelaxe.

Bertso-paperetan ere argitaratu zan kanta au, Aita Meagher'en bertsoekin batera, *Imp. de Pedro Orúe*. - *Eibar* moldiztegian inprentatuta. Onek ere, *Euskal-Erria*'k bezelaxe bertso guztiak. Bañan *ardan* jarri bearrean, *ardau* idazten du.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman ere arkitu ditugu, eskuz idatzita. Nork bialduak diran ez du esaten. Bertsoak *Euskal-Erria*'k bezela onek ere. Bañan ez *ardan* eta ez *ardau*; *ardo* idazten du. Eta modu ontan eratuta, kantatu ere orrela egiten dira-ta:

A, a, a,
ardo gorri naparra,
neurritz dala su-garra,
geiegian da txarra,

a, a, a,
ardo gorri naparra.

Azkoitia'n jaio eta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga'ren aotik ere jaso ditugu bertso auek. Bertsoak, *Euskal-Erria*'k bezelaxe, aitatzerik merezi ez duan aldaketa txiki bat edo beste izan ezik. Eta doña, onela:



Azkue'k, iru emale auengandik jaso zuan kanta au: Lekeitio'n, Luzia Zabala; Elizondo'n, Leonzio Iturralde; eta Arruitz'en, Franzisko Iguzkiza.

Iru emale oien emaitza, bere *Cancionero popular vasco* bilduman argitaratu zuan, 83 zenbakian. Bañan Lekeitio'ko eta Arruitz'ko doñuak bat egiñik, aldaketak oarretan adierazirik. Eta iruren aotik jaso zituan bertsoak edo letrak, naasita.

Beraren esku-idatzietan, berriz, iru doñuak berezita daude; eta bertsoak ere bai.

Guk ere, obe ustez, ala emango ditugu bai doñuak eta bai bertsoak, esku-idatzi oietatik kopiatuta.

Lenengo, Lekeitio'ko Luzia Zabala'ren doñu eta bertsoak:





A, a, a,
ardo gorri naparra,
alimentu ona da,
edan al baldin bada,
a, a, a,
alimentu ona da.

E, e, e,
ez utzi edan bage,
baldin bada debalde,
ni ardoaren alde,
e, e, e,
ni ardoaren alde.

I, i, i,
ardoak gaituz bizi,
naiz edan ta naiz utzi,
beinik bein aoa busti,
i, i, i,
ardoak gaituz bizi.

O, o, o,
edan dezagun gogoz,
zeuk orain da nik gero,
guztiontzako dago,
o, o, o,
edan dezagun gogoz.

U, u, u,
taberneruak saltzen du,
dirurikan badegu,
ardoa baldin bogu (*sic*),
u, u, u,
taberneruak saltzen du.

Be, be, be,
beterikan basoa,
konsolatu egidazu
neure biotz gaisoa,
be, be, be,
beterikan basoa.

* * * * *

Elizondo'ko Leonzio Iturralde'ren aotik jasota, doñua eta lenengo bertsoa besterik ez:





A, a, a,
arno gorri naparra,
alimentu ona da,
edan al baldin bada,
a, a, a,
edan al baldin bada.

* * * * *

Eta Arruitz'ko Frantzisko Iguzkiza'ren aotik jasotako doñu eta bertsoak:





A, a, a,
ardo gorri naparra,
alimentu ona da,
edan al baldin bada,
a, a, a,
edan al baldin bada.

E, e, e,
ni ardoaren alde,
edan ardura gabe,
baldin bada debalde,
e, e, e,
ni ardoaren alde.

I, i, i,
ardoak gaitu bizi,

noizikan bein bai busti,
edan gabe ez utzi,
i, i, i,
ardoak gaitu bizi.

O, o, o,
au biontzako dago,
edan dezagun oro,
zuk orain da nik gero,
o, o, o,
au biontzako dago.

U, u, u,
ardoak gaitu galdu,
geiegi edan degu,
lurra irago digu,
u, u, u,
ardoak gaitu galdu.

* * * * *

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco* ortan, doñua eta bertsoak eman ondoren, onako oar jakingarri au egiten du:

«Esta variante de Arruitz Lekeitio (len esan bezela, biak bat eginda ematen baititu) parece de más carácter báquico, pero tiene en su contra que se usa aún con letra castellana y no es tan típica como para poder asegurar que más bien es melodía exportada de nosotros que a nosotros importada.»

*A, a, a,
el vino de Navarra
a todos nos agrada
y la vida alarga;
a, a, a,
el vino de Navarra».*

* * * * *

Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman,
doñurik ez bañan beste letra bat arkitu degu:
bost bertso, bañan sagardoari buruz:

A, a, a,
sagardua ona da;
Ergobi'kua bada
eran gabe ez laga;
a, a, a,
sagardua ona da.

E, e, e,
egin nuben nik galde
ematen zan debalde
erateko bi balde;
e, e, e,
egin nuben nik galde.

I, i, i,
jarri ninduben ongi
erateko beste bi
mozkortu gabetani(k);

i, i, i,
jarri ninduben ongi.

O, o, o,
baziran ogei baso
eranak gozo-gozo
bete artian oso;
o, o, o,
baziran ogei baso.

U, u, u,
egin badet pekatu,
ederki det pagatu,
artu ala txukatu;
u, u, u,
egin badet pekatu.

«ANDRE BAT IKUSI DET...»

Azkue'k, bere bilduman, 89 zenbakian, doñu ta bertso aukeratu, Usurbil'ko Agustin Lertxundi'ri jasotako. Jose Agustin Lertxundi Alda zituaren izen-abizenak Usurbil'ko Errikotxia bertsolariak (1). Kanta hau berari jasotako, beraz? Baditeke; bañan Agustin Lertxundi bat baño gehiago ere izan zitekean Usurbil'en eta ezin esan.



(1) Aren bizitza ta bertsoak: *Auspoa*, 60.



Andre bat ikusi det,
biruntan tantan biruntena,
andre bat ikusi det
joan den astean, (*irutan*)
gizonaren galtzakin,
biruntan tantan biruntena,
gizonaren galtzakin
taberna batean.

—Bertan edan dezadan,
biruntan tantan biruntena,
bertan edan dezadan
pinta bat ekartzu.
Onoko galtza auek,
biruntan tantan biruntena,
onoko galtza auek
prenda ar itzatzu.

Ondoren, onako lerro auek ezartzen ditu
Azkue'k:

«Este lindo espectáculo de una borracha que entra en una taberna a vender los pantalones de su marido, se ha cantado mucho y con muy diferentes melodías en nuestro pueblo. Tres lindísimas figurarán en esta colección».

Bein da berriz egiñalak egin baditugu ere, bi besterik ez degu dalako kanta-bilduma ortan arkitu: au eta onen urrengoa. Irugarrengo ori ez dakigu nun dan, edo-ta argitaratu gabe utzi ote zuan.

* * * * *

Onako doñu eta bertso auek ere, Azkue'ren *Cancionero popular vasco* kanta-bildumatik, 143 zenbakitik, berak Gatzaga'ko Teresa Pagoaga'ri jasota:



1. –Tabernari andrea,
b'al dezu ardorik?
Frakatxo auen trukean
edango dizut nik.

2. –Zure senarrak eztu
oietxek besterik;
frakatxo oien trukean
emango eztizut nik.

3. –Tabernari andrea,
b'al dezu linorik?
Lino irun-trukean
edango dizut nik.

4. –Linoa badet baina,
egia esateko,
andre ardo zaleak
eztit ongi irungo.

* * * * *

Jose Ariztimulo *Aitzol* zanaren bilduman,
Jokin Dorronsoro'k Motriku'ko gazte bati en-
tzun eta 1934 urtean bialduta, doñurik ez bañan
onako zazpi bertso auek arkitu ditugu:

1. Andra bat ikusi det
igaro dan asteen,
senarraren prakakin
tabernako atean.

2. –Lenengoa da eta
pixka bat ekatzu,

orra senarran prakak
prenda artu itzazu.

3. –Ez dizut nik emango
praka-truke ardorik,
ez du zure senarrak
oiek baño besterik.

4. –Zartxo batzuk baditu,
aiek jantzi betza;
berriak egiteko
irabazi beza.

5. Tabenera andria,
liñurik badezu?
Arduaren trukean
neuk irungo ditut.

6. –Liñuak baitut baña
ez dizut emango;
andre ardozaleak
elizuke irungo.

7. Auzoan saltzen bada
ardotxo gozoa,
agur nire matatzak
eta amukoa.

* * * * *

Aitzol zanaren bilduma ortan bertan, 1936 urtean bialdutako bertsoetan, *Aitita Maluteko-ren abestiak* izeneko mordoan, bost bertso aukeratu ditugu:

1. Andra bat ikusi dot
igan dan astein,
gizonaren prakakin
trabenako atean.

2. –Lenengotxua da ta
pitxarra bete ixe,
oneik gizonen prakok
prenda iminixuz.

3. –Ez dau zure senarrak
eurak baño oberik,
ez dotzut nik emango
praka truke ardorik.

4. –Trabenera andria,
ligunik al badozu,
ardaoaren trukian
neuk irungo dotzut.

5. –Liguna badot baña
ez dizut emango,
andre ardao zaliak
ez luke irungo.

* * * * *

Gernika'ko Julio Bareño jaunak beste zazpi bertso aukeratu zituen, 1959-VI-26'an, ondoren oar au erantsirik:

«Alejandra Zubizarreta, 89 urtedunak, bere aitagandik ikasiak».

Irakurlea bereala konturatuko danez, lenda-biziko lau bertsoak ez dute, itxura danez beintzat, sail ontako bertsoekin zer ikusirik.

1. O, mutil, ez aiz egarri,
begian aukat igarri;
Atxondo'ko ur berde orrek
ez au orrela ipiñi.

2. Batian jaiki eta
bestian erori,
nunbait etxera jaku
mutil mozkor ori (2).

3. Nai nuena jan eta
nai nuena edan,
dirurik ezagaitik
bai nuan nok eman.

4. –Nun emonda orrenbeste
ponderaziñoa?
–Diruak daukalako (3)
estimaziñua.

(2) Bertso edo koplak au, *Ardoaren bentajak* izeneko sailaren amargarren bertsoaren puska da.

(3) Julio Bareño'ren idazkian: *dadulako*.

5. Andra bat ikusi dut
joan dan astian,
gizonaren prakakin
trabenako atian.

6. –Nik eztizut emongo
prakan truke ardaorik,
zeure gizonak eztauko
eurok baña besterik.

7. –Zaar batzuk an ditu ta
arek jantzi betza,
barriak egiteko
irabazi beza.

* * * * *

Kanta onen bost jaso-aldi bildu ditugu, bezaraz. Bañan besterik ere izango da noski.

Adibidez, Aita Otaño zanak ere badu kanta au, armonizatuta-edo, nunbait ere. Bañan erriaren aotik berak jaso edo Azkue'renetik-edo artua ote zuan, ezin esan.

Bost jaso-aldi oiek oñarriztat artuta, zenbait burutapen egin genezake.

Kanta au, naiko zarra da, guk uste. Alejandra Zubizarreta'k, 89 urte zitularik, 1959 urtean, bere aitari ikasia zuala esan zuan. Orrezaz gañera, antziñako kutsu eta esaera batzuk ere baditu. Eta doñu eta itzetan oinbeste aldaketa ere orregatik izango du: oso zarra dalako.

Kanta au luzeagoa izango zan. Bertsorik geiago edukiko zuan, noski. Jaso diran oiek, kanta osoaren zati edo puska batzuk besterik ez dira.

Kantarik geiena, alkar-izketan moldatuta dago, garai bateko ainbeste kanta zar bezelaxe.

«ARDAOTXO BALTZA, ZER DAKAK IK?»

Ardo-kanta au oso ezaguna izan da Bizkaia'n eta Gipuzkoa'ko zenbait alderditan. Eta gaur egunean ere ala dala esango genduke. Bañan oso zatika iritxi da gure eskuetaraño.

Azkue'k, bere kanta-bilduman, 91 zenbakian, bertso eta doñu auek ditu, Bizkaia'n, Igo-rreta'ko Josefa Astarloa'ri jasoak:

1. Ardaotxo baltza, zer dakak ik?
Larregi edanak ez gauza onik,
gizonak iminten badakik ik,
zutunik ibili ezinik.
2. Gaberdi ostean beranduan
etxea nekez jo genduan (1),

(1) Azkue'ren esku-idatzian, or goien ezarri degun bezela dago bertso-lerro au. Bañan bere kantutegian *etxea neke andiz* idatzia zuan, neurria luzatuz, gure iritzian beintzat.

eskaratz aldean sutonduan
panparreria bagenduan.

3. Andrea oinak erantziten,
berbako amar erantzuten,
gizonak deadar andreari:
—Jagi zaitez edo jagi adi.

4. Gizona aratuten inguruak,
nun ete direan akulluak;
«Amatxo!» deadarrez aingeruak,
aitak jo eztaian, koitaduak.



* * * * *

Mallabi'ko Aszension Alberdi'ren aotik, lenengo bertsoa eta doñua jaso zituan Azkue'k, eta bere kantutegian 92 zenbakian argitaratu:

Ardautxu baltza, zer dakak ik?
Larregi edanda ez gauza onik;
gizonak iminten badakik ik
zutikan ibili ezinik.



* * * * *

Gabika'ko Maria Josefa Izpizua'rengandik ere, lenengo bertsoa eta doñua jaso zituan Azkue'k; bañan etzitan bere kantutegian argitaratu. Eskuz idatzita utzi zituan:

Ardautxu baltza, zer dakak ik?
 Larregi edanak ez gauza onik;
 gizonak iminten badakik ik
 zutunik ibili ezinik.



* * * * *

Berdin egin zuan Azkue'k, Berriz'ko Ramo-
 na Apoita'rekin ere: lenengo bertsoa eta doña
 jaso eta bere esku-idatzietan utzi, iñun ere argi-
 taratu gabe:

Ardautxu gozoa, zer dakak ik?
 Larregi edanak ez gauza onik;
 gizonak ifinten badakik ik
 zutunik ibili ezinik.



* * * * *

Motriku'n ere jaso zuan Azkue'k doñu au. Bañan noren aotik esaterakoan, onela idatzi zuan: *Francisca (Zumayana)*. Eta argitaratu gabe utzi.

Bertso-lerroak, launaka jarri bearrean, danak segiran idatzi zituan, bertsoan berezi gabe alegia.

Ori zergatik egin zuan, errez argitu liteke. Bertso auk, len ikusi degunez, launa lerro dituzte eta launa puntu, launa *rima*. Bañan emalle onen aotik etzuan orrela jaso, dana nastuta baizik. Guk ere bere ortan uzten degu.

Bañan doñuak bi zati ditu. Orregatik, alkarrengandik berezita agertzen ditugu. Ia bertso-

lerro guziak lenengo zatiarekin kantatzen dira. Bigarren doñuarekin, berriz, azken lau lerroak, «Elgoibar'ko Azkarate'n» lerrotik aurrera, alegia.

Bart arratsean beranduan
etxea nekez jo genduan;
andik aurrera su onduan
panparrerria ere bagenduan.
Esaten diot andreari:
—Jaiki zaite edo jaiki adi;
naiz izan bedi gaberdia,
andrea, nun den aparria?
Santa Kurtzetan Legazpi'n,
dantzatu nintzan berakin;
Pazkoetan Bergara'n,
altza dringilin drangala dan.
San Tomasetan Mondrague'n,
alkar ikusi genduen;
Pazkoetan Bergara'n,
altza dringilin drangala dan.
Elgoibar'ko Azkarate'n,
neskatx-mutillak zesto baten;
atso-agureak beste baten,
altza dringilin drangala dren.





* * * * *

Arrasate'n ere bildu zuan kanta onen puska bat, bere doñuarekin; eta Altube'ren aotik bildu ere. Bañan etzituan argitaratu:

Bart arratsean beranduan
 etxean atea jo genduan.
 Atea jo eta andreari:
 —Jaikiko az edo jaikiko adi;
 alperrik izango'n gaberdia,
 prestatu bearko don aparria.



* * * * *

Amorebieta'ko Luziana Estankona'ren aotik ere jaso zuan Azkue'k kanta onen beste era edo *variante* bat; eta bere kantutegian, 470 zenbakian argitaratu.

Ontan ere, aurrekoan bezela, ez ditu lerroak bertsoka eratzen; kanta guzia segiran jartzen du. Guk ere berdin egiten degu.

*Agura zarkillun barkillun bat
geure ategian zegoan bart;
ezetz ta ezetz ziñoan baia
andrea faltako zuen ark.*

Bart arratsean beranduan
atea nekez jo genduan.

*Agura zarkillun barkillun bat
geure ategian zegoan bart.*

Andik aurrera sutondotxoan
panparrerria bagenduan,
deiez asi zan andreari:

—Jagi zaitez nai jagi adi.


*Agura zarkillun barkillun bat
geure ategian zegoan bart.*

Asi zan aratzen inguruak,
nun ete egozan akuluak,
akulu edo makuluak,
agura paraketamalloa.

*Agura zarkillun barkillun bat
geure ategian zegoan bart.*

Garbi asko ikusten danez, *cursiva* letraz idatzi deguna bertso bakoitzaren asiera eta bukaera da; errepikagarri bat, alegia. Orrela, bertso bakoitza zortzi lerrokoa da, kantatzeko beintzat:





* * * * *

Aitzol edo Jose Ariztimuño zanaren bilduman ere arkitu degu kanta au, doñurik gabe ordea:

Bartarratsian beranduan
nekez atia jo genduan;
andik gero su onduan
panparroikeriya bagenduan.
Biba, biba,
gure uniyuan dabillena,
guazen, guazen,
gure lagunetara.

Oian zeguan atsuari:
—Jaikiko bazera jaiki ari;
alperrik izango'n aitzakiya
ipiñi biarko dun apariya.

Biba...

Apal ostian gero dantzan,
gurekin lanik asko bazan,
etxian gure esperantzan
atso koitadu au egon zan.

Biba...

Noizbait etxera giñanian,
joan izan giñan lau oñian,
bat bestiaren gañian,
alkar lagunduz alegiñian.

Biba...

Etixeraturik ni mozkordun,
atsua errietan mur-mur.
—Arrazoiarekin diardun,
baña alperrikan ezin jardun;

Biba...

* * * * *

Aitzol zanaren bilduma ortan bertan, 1935
urtean Jokin Dorronsoro'k bialduta, bertso ba-
karra:

Bart arratsean berandun
etxera nekez jo gendun;
andik aurrera su ondun
panparrerie bagendun.

* * * * *

Bañan kanta onen lenengo aitamena, guk
ezagutzen ditugunetan, *Euskal-Erria* aldizka-
rian arkitu degu, 1888 urtean. Isidoro Ruiz de
Arbulo'k, *Las fiestas euskaras* izeneko idazlan
batean —Durango'koak euskal festa oiek—, ber-
tso bakarra ematen digu, doñurik gabe:

Matsaren ura, zer dakak ik?
Larregi edan ta ez gauza onik;
gizonak ifinten bakakik ik
zutunik ibilli ezinik.

* * * * *

Azkoiti'n jaio eta Zarautz'en bizi dan Patxi
Larrañaga adiskideak, beste onela kantatu digu:

Azkoiti'ko Azkarate'n
atso-aguriak oe baten,
neska-mutillak beste baten,
zintzirri-zantzarra egin zuten.

Aguriak atsuari
–Jaiki zaitetz edo jaiki ari,
naiz izan arren gau erdia,
ekatzin neri afaria.



«BEIN TABERNAN...»

Onako doñu eta bertso auk, Azkue'k Sunbilla'n jaso zituan, Feliziana Arretxea'ren aotik; bañan argitara gabe utzi.

Illunpetik ateratzea merezi dutelakoan, emen ezartzen ditugu:





1. Bein tabernan, bein tabernan,
bein tabernan jokotan,
emazte ori etorri zitzaitan
ezkonkina bezala (1).
Artu maitetik pitxarra eta
jo ninduen kopetan,
jende onak, ez fidatu
andre mostatxdun oietan (2).

(1) Puntu au ezin diteke orrela izan. Azkue'k gaizki kopiaturko zuan.

(2) Azkue'k: *andre mostratx onetan*. Bañan or goien ezarri bezela bear du, esaera zaar bat dan bezela alegia.

2. Txokolatera zikin batean
para ziguten kafea,
posibleetan etzuen nai
hura artu gabe joatea.
Txokolatera barren guzia
armiarmaz betea,
amaren seme bataiatuak
etzen posible artzea.
3. Egun batean gelditu nintzan
ate-xokoan gordia (3)
ango manera ederra ikusita
ezin idukiz irria.
Auzoko etxera lasterka joanta
ekarri zuen argia,
etzakienak erran zezaken
eroa zala erdia.
4. Orra, Maria, orra, Maria,
orra Maria Jazinta,
mundu guzia gelditua da
gure berriak jakinta.
Egun batean esan zenidan
aldamenean jarrita:
biak, esposa bear ginduela
beste guztiak utzita.

(3) Azkue'k: *gordea*. Punturako, *gordia* bear du emen.

5. Beste guztiak oera joanta
gelditu nintzan bakarrik,
egundaraino ezpaitut edan
an bezalako naparrik:
gustoa ere txarra zuen ta
batere etzuen indarrik,
hura baino oberik ezpalitz
nion elitzake mozkorrik.

* * * * *

Aita Donosti'ren artxiboan, *Cuaderno de la Argentina* deritzaion batean, laugarren, bostgarren eta bigarren bertsoak osorik eta irugarrenaren erdia azaldu dira, orden orretan. Dauden bezelaxe ezartzen ditugu emen:

Urra, Maria, urra, Maria,
urra, Maria Jazinta,
mundu guzia harritua da
zure berriak jakinta;
behin batian erran zinaitan
aldamenian jarrita:
biak ezkondu biar ginela
bertze guziak utzita.

Bertze guziak oherat eta
gelditu ginen bakarrik,
nik egundaino ez dut edan
nixon halako nafarrik:
gustoa ere txarra zuen eta
batere etzuen indarrik,
arno hoberik nixon ez balitz.
batere elaike muzkurrik.

Txokolatier txar-txar batian
paratu zuen kafia,
hura edan gabe etzuela nai
etxe hartarik joaitia.
Txokolatier barne guztia
irmiarma-sarez betia,
amaren seme bataiatuak
etzuen posible edatia.

Ni ere hantxe nindagon
ate ondoan jarria,
haren manerak ikusi eta
ezin idukiz irria.

BERTSO BERRIAK
«FRANTZES EUSKALDUN BAT...»

Bertso auek, Oxford'eko *Bodleyan Library*'tik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko paper bat da.

Bederatzi puntuko bertsoak dirala ematen du. Bañan zortzikoak dira. Zazpigarren puntua bear zukean lerroak uts egiten du. Rima gabea da.

Paperaren barrenean, eskuz idatzita, onela irakurtzen da: *Tolosa, abril 1900*.

Egillearen izenik ez da ageri. Bañan enkar-guz jarritako bertsoak dira. Frantzes euskaldun batek bere lagun naparrari apustu egiten dio, bertsoak atera baietz. Bai ala egin ere, bañan gipuzkoeraz. Jarri-araztera, Gipuzkoa'ko bertsolari batengana joango zan.

Seigarren bertsoak, Urto'ko armadun baten aitamena egiten du. Urto, Leitza eta Berastegi tartean da, Naparroa eta Gipuzkoa'ko mugan, eta mikeleteak izaten ziran.

1. Frantzes euskaldun bat
eta ez txit zarra,
bai ere bai beste bat
berez leitzarra;
aurrenekua dakit
billauba ez dala,
eta bigarregua
txit prestuba dala;
bat frantzesa bada
bestea naparra,
frantzesa bizkorra ta
naparra azkarra,
biyak ez daramate
bizitza txarra.

2. Biyak nola diraden
txit tratolariyak,
dakite nun izaten
diran periyak;
billatzen badakite
sagardotegiyak,
ta ardotegiyetan
merienda aundiyak;
zein baño zein biyak
dirade argiyak,
txit umore oneko
poz emangarriyak,
itoko ez ditunak
iñoiz egarriyak.

3. Lengo egun batean
juntaturik Leitza'n,
parragarrikeri bat
andik sortu zan;
frantzesak naparrakin
antolatu bazan
leiztarraren kotxean
sartzeko Tolosa'n,
nai nuke gaur esan,
berak jakin dezan,
naparra lagunakin
nola portatu zan,
pregonari zar batek
nai duen gisan.

4. Zaldi zuri-zuri bat
zutela tiraka,
Berastegiyan sartu
ziran laisterka;
meriendatzera joanik
kotxetik jetxita,
an pasatu omen zan
kontu bat polita:
txit guri jarrita,
berdindubaz tripa,
an ziraden an pestak
kontuba ekarrita;
naparra gelditu zan
poltsa itxita.

5. Pagatu nai ezikan
bada eskotean,
frantzesak dena paga
zun aizkenean;
ta andre bat arturik
naparrak kotxean,
frantzesak esan ziyon
umore onean:
«Errira joatean
bi oñen gañean,
baietz bertsuak jarri
gauz onen bidean».
Frantzesak portatu da
giza-legean.
6. Lau duro noski egin
zituzten apustu,
orain prantzes argiyak
jasoko ditu;
Urto'ko armadunak
nai badu portatu,
partea zibelako
arrek ere artu,
orra nik kontatu,
txit garbi kantatu,
parragarrikeriya
nola dan pasatu,
frantzes euskalduna bedi
pozaz dantzatu.

KANTA ZARRAK

Iru bertso auek, garai bateko *Euskal-Erria* aldizkaritik artuak ditugu: 65 zenbakitik, 1911 urtetik. Izenburua, or goien ezarri deguna du *Euskal-Erria*'k ere; eta bertsoen ondotik argibide jakingarri au:

«Gaztiak giñanian amaika aldiz entzuntako kantak dira abek. Orduban, gutxi izango ziran euskaldunen artian, ezagutzen ez zituztenak; orain gutxiyago dakizkitenak. Ikasi nai badira, orra bada argitaratu. Doñua're (ondo pollita da) naiko nuben azaldu, bañan nere kemenak ez dira orrenbesteraño irixten. Jose Zapirain».

Jose Zapirain orri, izengoitiz *Txapillo* esaten zioten. Donostia'n, Santo Tomasetan-eta, bestolariei puntuak eta gaiak berak jartzen zizkien garai artan.

Bertso-jartzallea ere bazan, eta sail batzuk baditu *Euskal-Erria* ortan bertan argitaratuak.

Jose Zapiain onek ez du zer ikusirik Erren-
teri'ko Jose Zapiain bertsolariarekin.

Pena artzekoa da, kanta auek doñurik gabe
agertu izana. Guk, beintzat, zer doñurekin kan-
tatu bear diran ez dakigu.

Euskerari, beste aldeko kutsua artzen diogu.
Andik etorritako kanta izango da.

Dударик gabe, bertsorik geiago ere izango
zuan.

Kanta onek erakusten digunez, gaur egu-
nean ez-ezik, errota-arri oneko gizonik bazan,
denbora aietan ere, Oiartzun aldean.

1. Oiartzun'go Kontzeju etxeko
aldamenian,
apari on bat egin ginduen
arrats batian:
zikirokiya, erbiya xaltxan
arras gusto onian,
erbiya're atzemaniya
an zen konpañian;
Zuloaga pillotariya
ene saiatsian,
botilleria pronto zeguen
aldamenian.

2. Goizian goiz jeiki orduko
prest txokolatia,
ura ar eta pasiak gare
eguardiartia.
Eguardiyan zopa ona,
ollua gaineko,
aragi erre zikirokiya
eiekiyen ondoko,
ollanda, ollasko, antzara gazitu
irugarreneko,
arno ona eiekiyen
kontsolatutzeko.

3. Tudela'ko arnoaren
gusto ezelenta,
arrek alegratzen du
ene biyotza;
ez txakoli, ez sagardo,
ez-eta pitarrik,
ene biyotza orrek bezela
alegratzen dianik;
orain ere balegoke
ttantta bat artatik,
on egingo lirake, seurki,
duda gaberik.

«MUTILL GAZTE BATZUEK...»

Zortzi bertso auek, Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bildumatik artuak ditugu.

Eskuz idatzita daude, orri xar batean. Bañan geienak tintaz; eta azkenekoa eta beste baten zatia lapitzez.

Orria puskatuta dago, eta irugarren, seigarren eta zortzigarren bertsoai puska bana falta zaie. Utsune oiek, puntuz idatzi ditugu.

Orri xar orri, idazteko tankeran-eta, borradora ote dan itxura artzen diogu. Ala balitz, Enrike Elizetxearen beraren lana izan litezke bertso auek. Berak jarriak, alegia, bertso-jartzalle saiatua baitzan.

Bañan gure iduripena ere izan baititeke, besterik gabe ezin joko degu Elizetxea ori bertso auen egilletzat.

Obe izango da, beraz, bertso auek ere aita ezagunik gabekoetan ezarri eta liburu ontan argitara eman.

1. Mutill gazte batzuek
badira erriyan,
igualik gabekuak
iruzki azpiyan;
lanerako alperrak,
pizkor zurrutian,
diru askorik ez da,
ez, oien boltsian.

2. Lanian eziñ dute
sos bana irabazi,
zergatikan ezertan
ez duten ikasi;
zenbat ofiziyotan
oiek diran asi,
aste bat pasa eta
juan dira igesi.

3.
.
.
.
.
.
.

Ibilliko giñan gu
berau bazterrian.

4. Mutill gazte oriyek
formal dira ibiltzen,
beñepiñian ez da
bat etxera biltzen;
karro zar-zar batian
gabaz da gelditzen,
ez dakigu an otxak
nola ez duen iltzen.

5. Oien egitekua
beti tabernetan,
jarriyaz sesiyua
sartzen diranetan;
maiz ikusten dirade
itxura txarretan,
far egiten diete
toki guzietan.

6. Diru asko kintzenetan

.
.
.
.
.
.
.
.

7. Orrela badezute
biar gero bizi,
neskatxak zuengandik
joango dira igesi;
lanian eziñ dezute
iñola ere etsi,
asi ta beriala
geienez utzi (1).

8. Ez genion parterik
eman guk iñori,
berak asmatu dute
gezur aundi ori;
etzigitela egin
bisitarikan guri (2),
ori
.

(1) Bertso ori orrela idatzita dago. Bañan ondoren beste lau lerro aukeratuak irakurtzen dira:

asi askotan bañan
txit agudo utzi,
ibilliko zerate
aurrera itxusi.

(2) Lerro au orrela idatzi degu; bañan ez degu oso garbi irakurtzen eta duda egiten degu ola ote dan.

«SAN MIGUEL AURREKO...»

Amabi bertso edo koplak aukeratuak, Oñati'ko Araotz ballaran, Azkoiti baserrian, jaso genituan.

Eztaietara bein batez joan eta zer bazkari serbitu zan esango digute.

1. San Miguel aurreko
sapatu batian,
eztaietan izan giñan
Latostei aldian.
2. Lenengo platilluan
baba beltzen zopa,
urrena zer izango zan
señale zan ura.
3. Bigarren platilluan
India-babia,
ark ere falta zuan
urdai-tajadia.

4. Irugarren platilluan
buzkantzaz genduan,
piparra pranko eta
gatza falta zuan.

5. Fermiñak ekarri eban
katilluan gatza,
itz bat esan da dana
neskatxaren tatxa.

6. Urrutxu'ko alaba,
Fermiña, entzuixu:
neskatxai desafio
gutxi bota iozu.

7. Ogiak ere bazuan
labeko faltia:
azala kixkala ta
barrua erre baia (1).

8. Ezur andiak ziran
mami gutxirekin,
azak sartuta ere
etzuten irakin.

(1) Baia: bagia, bagea.

9. Babartzua ikusi gendun
parian pasatzen,
guretzako etzeguan
ta zer egingo geben?
10. Ollua ikusi gendun
baratzen kantatzen,
Araoz'tarren platilluan
trabarik etzuten.
11. Gizon edadekoa
andre gazte batekin,
aintxe gelditu dira
biak alkarrekin.
12. «Pitarra betetzeko
nun da zaragia?»
«Ortik bera juanda
bada iturria».

BERTSO BERRIYAK
«KANTA-PAPERERA SALTZEN
DALAKO...»

Emezortzi bertso auek, Errenteri'ko Makazaga'k argitara eman zituan paperetan, eta moldiztegi ortan bertan kopia ateratzeko egokiera izan genduan.

Egillearen izenik ez da iñun ere ageri. Bañan Gipuzkoa'ko kosta aldeko bertsolariren bat dala esango genduke. Darabilen euskera alderdi ortakoa baita.

Eta izendatzen dituan erririk geienak ere bai: Lasarte, Orio, Donosti, Azpeiti, Zarautz, Igeldo eta Getari.

Bertsoak noiz jarriak diran ere ez da esaten. Bañan automobilla ere aitatzen da eta ez dira oso zarrak izango. Gerra aurrekoak, noski; askoz lenagokoak ere ez, ordea, gure iritzirako beintzat.

Mozkor baten oiturak eta ibillerak azaltzen dizkigu emen bertsolariak. Orregatik sartu ere ditugu liburu ontan.

Bañan mozkor orren izenik-eta ez da salatzen. Ixilikan uzteko obeak, guk uste, txetasun oiek.

Seguru aski, bertsolariak ere orretxegatik gordeko du bere izena. Bestela, bertso auek gogor xamarrak baitira, berak ere arriskuan jartzen zuan bere burua.

1. Kanta-papera saltzen dalako
oso afizionatuba,
egokiera etorri zaio
nekatu gabe burua (1):
«Egiñ biezu milla pare bat
inprentatzeko moduba,
noranai juanda bilduko dezu
obekiñ naiko diruba».
2. Komeni diran bertso berriyak
jarri dizkate orreri,
dabilen tokiñ isildu gabe
ari dalako kantari;
aspaldikuan badu beregan
suerte txarra ugari,
oraindikan e gustora dabil
ardo tartian igari.

(1) Bertso-paperak: *negatu*.

3. Lasarte'tikan abiyatu zan
Oriyo'rako irian,
Donostia aldera lasai zijuan
deskuidatuta birian;
jornara txarra ateria zan
automobillen aurrian:
iztarra eta ortzak autsita
billatu zuten birian.

4. Donostiya'ra eraman eta
al zan lenena kuratu,
mediku jaunak iztarra jarri,
ezurak zaizka peratu;
kojorik eta ezer ez dauka,
aiñ ederki zan sendatu,
oiek guziyak pasata ezta
oraiñdik eskarmentatu.

5. Ondoren artan lengo tokitik
Azpeiti'ra zan aldatu,
ortzak berriyak jarri zituen,
bizi zan oso kontentu.
Beti parrandan dabillen batek
diruba nola sobratu?
Dentistak ere etzun kontuba (2)
nai baño leno kobratu.

(2) Bertso-paperak: *Dentistak e etzun kontuba.*

6. Illuntz eta jai gustatzen zaizka
zurruta eta kantuba,
amaika aldiz egun-sentiyan
dago etxera sartuba;
sasoi ortako mutillarentzat
ori da fundamentuba,
auzoko batek pagatu ziyon
dentistaren kontuba.

8. Iñoiz bisita egiten diyo
Zarauz'ko txakoliñari,
arek propinak ematen dizka (3)
deskuidatutzen danari;
dudarik gabe libratzen ditu
beti ai dala kantari,
laugarren jaio-aldiko ortzak
galduta ibilli da ori.

7. Jayian erten denbora pasa
tabernara etorrita,
berez eztanai zintzo ibiltzeko
esatia alperrik-ta;
astelenian patrika utsa
ta nagusiyak errita,
denbora askuan ez du luzitu
bi aldiz ortzak jarrita.

(3) Bertso-paperak: *propina*.

9. Gazte askori dotore samar
gustatzen zaio sasoyan,
orrek ere du tipo polita
etxetik irten berriyan;
batzuek ditu galtzen kalian,
bestiak berriz sasiyan,
ortz postizuak jarrita dabill
irugarrengo aldiyan (4).
10. Orrek dabilzki eten gabeko (5)
parrandak eta oporrak,
atarramentu onikan ez du
sekulan gizon mozkorrak;
orla etzikan iñork jarriko
izan balira gezurrak,
eskas ditula diyo jendiak
Gipuzkoa'ko ezurrak.
11. Igande baten pasiatzera
Igeldo'ra abiatuta,
egun guziko erraziyuak
ustez berekin artuta,
Mendizorrotz'a baño lenago
zato ardua ustuta,
planta ederrian iritxi ziñan
zere txapela galduta.

(4) Bertso-paperak: *Irugarren*.

(5) Bertso-paperak: *dabilki*.

12. Igeldo'raño allegatu zan
señorito bat bezela,
jendiak laister igarri ziyon
mozkor samarra zegola;
ezagun batek galdetu diyo (6),
«Nun dezu, gazte, txapela?»
Artian ere uste zun orrek
bere buruban zeukala.
13. Beste batian dotore samar
pasa zan Zarautz aldera,
aruntza oso kontentu juan zan,
bueltan zekarren galera.
Nork daki zenbat izango zitun
kalderilla ta papera?
Berak diyonez or galduba du
zedularekin kartera.
14. Bere denboran egiña badu
makiña bat erromeri,
zeñek ez diyo begiratuko
orrela dabillenari?
San Antonetan ikusi gabe
ez du utzitzen Getari,
ogei bat ordu gutxiyenko
or pasia da kantari.

(6) Bertso-paperak: *diyon*.

15. San Anton festak igez Getari'n
pasa zituen kontentu (7),
jan eta edan galanki egin (8),
bertsuak lasai kantatu;
arratserako ostatu ona
debalde zuben billatu,
erri ortako ezagun zarrak
etzaizka gaizki portatu.

16. Nola izan zan Getari'tikan
Zarautz aldeko jetxera:
juan zan goizeko automobilla,
ezin iritxi kotxera;
pare gabia izan biar du
mutill orretxen patxara,
astiartian sorgiñ-bildurrik
gabe sartu zan etxera.

17. Lotara gabe gau eder asko
galtzen du bertsolariyak,
gosal onduan lanera junda
argi zeduzkan begiyak;
ikusi orduko sermoi eder bat
egiñ diyo nagusiyak,
jornalik gabe ematen dizka
aste guzirako jayak.

(7) Bertso-paperak: *pazituen*.

(8) Bertso-paperak: *an eta edan*.

18. Bertso berriyak orra atera
nautelako enkargatu,
goratu diran disparatiak
paperean dira agertu;
deskuiduan ezer geiegi
iñork badiyo kargatu,
oinbesterekin bukatzen degu,
gaizki esanak barkatu.

TRIPAUNDI TA BERE LAGUNAK SAGARDOTEGIAN

Zortzi bertso auek, Gregorio Mujika zana-
ren bildumatik ditugu, kanta-paper batetik ar-
tuak. Moldiztegi-izena: *Tip. R. Fernández -
Irún.*

Irun'en inprentatutako bertsoak, beraz. Ba-
ñan bertan jarriak? Ezin jakin.

Tripaundi ori, zelebreren bat izango zan eta
sagardotegiko lagunak arentzat bertso auek ja-
rri. Kantatu ere egingo zituzten umore ederrean
danak batera.

Bañan bertso-mota au berezi xamarra baita,
doñua ere etzan oso ezaguna izango. Jakinga-
rriagoa, beraz, guk uste, ori dala-ta.

Lenengo bertsoan, bigarren lerroaren saie-
tsean, *bis* ezarrita dago paperean. Guk ere alaxe
ipini degu, noski. Gañontzeko bertsoetan, be-
rriz, olakorik ez da. Bañan bestetan ere bigarren
lerro ori bi bider kantatzekoa izango zan.

1. Gure Tripaundi dago
beti zurrutian (*bis*),
kupelan baztarrian
mozkortu artian,
Tripaundi,
beti zurrutian,
Tripaundi,
mozkortu artian.

2. Gero tabernariyak
ortik bialtzian,
andriari jipoia
etxera juatian,
Tripaundi,
ortik bialtzian,
Tripaundi,
etxera juatian.

3. Tripaundi ibiltzen da
arront berotuta,
gerrikua zintzilik
txapela galduta,
Tripaundi,
arront berotuta,
Tripaundi,
txapela galduta.

4. Mutil koskor guziyak
ondora bilduta,
ez dio ajolikan
lotsarik ez du ta,
Tripaundi,
ondora bilduta,
Tripaundi,
lotsarik ez du ta.
5. Kalian ziraldoka
dalako ibiltzen,
mutil koskor guziyak
dute ezagutzen,
Tripaundi,
dalako ibiltzen,
Tripaundi,
dute ezagutzen.
6. Noizik bein Eskalantek
kartzelan sartzian,
sermoia egiten du
erriko etxian,
Tripaundi,
kartzelan sartzian,
Tripaundi,
erriko etxian.

7. Andik ateratzian
baldin badu sosik,
sagardoteira berriz
sartutzen da pozik,
Tripaundi,
baldin badu sosik,
Tripaundi,
sartutzen da pozik.
8. Eta berialaxe
usturik basua,
esaten du Tripaundik:
«Au mama gozua!»
Tripaundi,
usturik basua,
Tripaundi,
«Au mama gozua!»

BERTSO BERRIAK (ATIA TA KATUA)

Bertso auek, *Impr. Baroja San Sebastian* moldiztegitik ateratako paper batetik ditugu.

Es propiedad ere badu paper onek. Egillearen eskubideak errespetatzeko, alegia. Egille ori nor izan zan, azken bertsoak dio: Jose Antonio izena, *Portu* izengoitia. Bañan bertso-jartzalle orri buruz, ez degu beste argibiderik iñun jaso.

Bertso-paper ori, Baroja etxe ortan bertan jaso genduan, bertako Joakin Muñoz-Baroja zanaren eskutik.

Lenengo bertsoan Irura aitatzen baita, gertaeraren berri ikasi naiean, ara joan giñan eta Inazio Arregi segalariari bertso auek erakutsi. Ez genduan alper biajea egin. Onela esan zigun:

«Orduan, amabi orduko lana izaten zan. Artean zortzi ordukoa jarri gabea. Neronek ere ezagutu nuan amabi orduko ori.

Eta makina txikia eta paper gutxi egiten zan. Eta jaiean ere lan egiten zuten. Jai-goizean, zor-ziretako meza entzun eta bederatzietan sartu. Eta bezperan illuntzeko seiretan sartu ziranak, goizeko bederatzia arte egon.

Bañan ain estu etziran ariko, ikusten danez, eta jaiean beintzat lasai xamar. Nagusirik etzan izango, direktorerik ere ez, eta denbora pasa. Lana errez beintzat.

Eta katua arrapatu zuten or nunbait ere, lazoarekin edo makillarekin jota-edo. Katua arrapatu kuadrilla batek; ez dakit zeñek.

Katua arrapatu eta axketan jarri. Ura, Alkiza'tik papelerara etortzen dana; eta jarri dute or, ur korrientean.

Eta beste kuadrilla batek, makineroak edo ez dakit zein izango ziran, aiek ikusi dute katua ur korrientean nola dagoan eta ostu egin dute katu ori. Ostu dute eta:

— Au gure kuadrillarako gutxiegi dek. Atea jarriko diagu guk.

Badakizu ur-atea zer izaten dan. Eta ala, atea lumatu eta biak gatz-binagrean jarri, salmueran.

Bañan katua il zutenak, atea ta katua nun zeuden ikusi eta biak ostu, eta orduan bertsoak atera. Izugarri ederrak dira, gañera, bertso oiek».

Bertsoak kantatzeko, *Ai gure antziñako guraso nobleak* bertsoen doñua artu diteke, azkeneko bi lerroak bi bider kantatuaz. Doñu ori: *Auspoa* 123-124-125, 136 orri-aldean.

1. Bertsuak paratzeko
enkargatu naute,
enkargatu naute,
kuestiyo bat polita
dala mediante:
Irura'ko gaztiak
broma pasatu dute,
alkar txuliatutzen
ederki dakite,
batzuen idea txarra
beretzako kalte,
eskutikan txoriyak
igesi egin diyote.

2. Batzuek pentsatu zuten
katuba jatia,
katuba jatia,
bestiak preparatu
zutela atia;
orretarako zuten
toki apartia,
etzuten alkarrekin
tripa betetzia,
bañan bai desiua
dana txupatzia,
ori da intentziyo
gaizki irtetzia.

3. Katu ori jarri zan
ur korrientian,
ur korrientian,
eiztari bat etzegon
oso apartian;
ark pentsatu zubana
bai bere artian:
«Onek ondo emango dik
egazti tartian,
artu eta eraman zatan
nere galtzarbian,
biyak salmueran jarri
barrinoi batian».

4. Atia ta katuba
biyak alkarrekin,
biyak alkarrekin,
salmueran jarri ziran
gatz binagriakin;
bañan jabia etzan
kontentu orrekin:
«Nik atera bear dit
arratsarekin,
mox mox deituko ziot
izen jatorrakin,
al badu datorrela
bere atiakin».

5. Jabiaren esana
katubak aituta,
katubak aituta,
barriñoitik altxa zan
atia artuta;
igerririk zegola
etxez mudatuta
eta lurra aparte
goitik beiratuta,
esan zion nausiyai
ondo pentsatuta:
«Onekin laister or naiz
eguaq ditu-ta».

6. Leiotik tabernara
biyak alkarrekiñ,
biyak alkarrekiñ,
eiztariya gelditu zan
barriñoi utsakiñ;
len konforme etzana
egaztiyarekiñ.
katuba arrapatu
lotsa gutxirekiñ,
biyak jatiagatik
bere lagunakiñ;
orain egon dedilla
tripako miñakiñ.

7. Broma txarra izan da
eiztariyantzako,
eiztariyantzako,
naigabek preparatu (1)
zitun guretzako;
ark libre baldin bazuben
katuba artzeko,
baita bestiak ere
biyak ekartzeko,
lapurretako lana
etsaiarentzako,
ori gerta dezaiola
eskarmenturako.

8. Bera eta lagunak
daude penaturik,
daude penaturik,
zergatik gelditu diran
probatu gaberik;
gure zintzurra bapo,
oienak baraurik,
esan leike ez degula
konzienziyarik;
ez bazuten izandu
intentziyo txarrik,
guk ez genduben jango
aien egaztirik.

(1) Bertso-paperak: *naigabe*. Bañan ondoren *zitun* baita-
tor, *naigabeak* bearko luke emen. Bañan *naigabek* ezarri
degu, neurria luzatu ez dedin.

9. Amar lagun ziraden
meriendatzeko,
meriendatzeko,
ni eraman ninduben
esamiñatzeko;
biyak txit onak zeuden
egiya esateko,
etzegon aitzekirik
kozinerantzako,
ezurrak utzi dira
eiztariyantzako,
berriro salmueran
nai badu jartzeko.

10. Ezurrak jarriatik
lengo barrinoian,
lengo barrinoian,
ez dizkitek ostuko (2)
berialakuan.
Lendabizi okerra
zeñek egin zuban?
Urrengo baterako
euki zak goguan:
katuba uretikan
artu ezpauban,
atiaren ixtarra
probatuko uan.

(2) Bertso-paperak: *dizkiten*.

11. Ori dala meriyo
nik meriendatu,
nik meriendatu,
zergatikan jabiak
nindun gonbidatu;
merezi beziñ ongi
nai nuke kunplitu,
Jose Antonio naiz,
izengoitiz *Portu*,
gaizki itz egin badet
al bada barkatu,
eta nai'zutenian
berriz abisatu.

Argia'n, 1930.VI.1'an, sail ontako bederatzi bertso:
1, 2, 3, 4, 5, 6, 9, 10 eta 11'garrena.

Aldaketak: 1/1: Bertsuak jarritzeko; 1/5: degula bitarte;
1/7: broma izan dute; 1/10: batzuben asmo txarrak; 1/11: be-
rentzako kalte; 1/13: iges egin diote; 2/1: Batzuek oldoztu
zuten; 2/6: ortarako zuten; 2/8: ez danak alkarrekin; 2/10:
batzuben desiua; 2/11: danak txupatzia; 3/2-3: ur bizi-bi-
zian; 3/10: artuta eman zadan; 3/13: ontzitxo batian; 4/5:
gatz ozpiñarekin; 4/7: txit pozik onekin; 4/8: nik atera biar
det; 4/9: arrazoiarekin; 5/4: jaiki ontzitxotik; 5/7: lekuz ald-
datuta; 5/10: esan ziyon jabiai; 5/11: ondo oldoztuta; 6/4:
eiztariya gelditu da; 6/5: ontzi utsarekin; 6/6: len pozik etze-
gona; 9/4: ni eraman ninduten; 9/6: biyak txit ederrak zeu-
den; 9/9: jartzaliantzako; 10/1: Ezurrak jarri arren; 10/2-3:
lengo ontzitxuan; 10/4: elizkikek artuko; 10/6: lenbiziko
okerra; 10/7: zeñek egin duan; 10/10: udetikan katuba;
11/1: Orra bederatzi bertsotan; 11/2-3: naikoa kantatu:
11/4: eta broma ederra; 11/5: gañera pasatu; 11/6: ni nola
bizi naizen; 11/7: Donostin galdetu; 11/13: berriz gaztigatu.

MOZKORRARENAK BERTSO BERRIYAK

Amabi bertso auek, beren izenburu eta do-
ñuarekin, *Argia* astekarian azaldu ziran,
1931'eko Apirillaren 12'an.

Astekari-puska ori, Elgoibar'ko Antonio
Arrillaga medikua zanak jarri zuan gure eskue-
tan.

Mozkorraren ondoren txarrak agertzeko ja-
rritako bertsoak ditugu.

Ez da bertsoen egillea nor dan esaten, eta
noiz jarriak diran ere ez.

Lenengo bertsoan, aldaketa txiki bat egin
degu, ala bear dualakoan. Irugarren puntua,
barruan dakar *Argia*'k; bañan bestekin ez da
ondo uztartzen: *letua, ardua, bapua*.

Barrua ezarri degu. Gramatikaz *barrura*
bearko luke. Bañan izketan oi danez eta ber-
tsoetan ainbat aldiz agertzen danez, «r» ori ken-
du egiten da, eta puntua ere orrelaxe egokitasu-
nez jantzi.

Ona, beraz, besterik gabe, lenengo doña
eta ondoren bertsoak:

The image displays a musical score for a piece in 5/8 time. The score is written on eight staves. The first staff is the treble clef, and the remaining seven staves are bass clefs. The key signature is one flat (B-flat). The melody is primarily in the treble clef, while the accompaniment is in the bass clef. The music consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and accidentals. The piece concludes with a double bar line and a repeat sign.

1. Gizon jakintsuak esaten dute
liburuetan letua:
gure guraso Noe dontsuak
asmatu zula ardua;
indarra badu sartu ezker
ugarri xamar barrua,
eskandalua ateratzeko
lagun ori da bapua.

2. Gizon batzuek ixillak dira
ardua edan artian,
ondorenean asitzen dira
danak izketan batian.
Utsa litzake esan ezker
kontu guziak pakian,
baña batzutan aditzen dira
itz zakar batzuk tartian.

3. Gizonak errez mozkortutzeko
kondizio bat bear du:
basua ardoz ondo betia
sarritan eskuan artu;
sabel-putzura askotan ustu
eta ipui zarrak kontatu,
barru berdintzen dijoan eran
ardua berriz gozatu.

4. Tabernan sartu, ardua edan,
batian eta bestian,
azkenerako arkitzen dira
oso estadu tristian.
Abilidadez bete-betiak
daude beraren ustian,
iñork lagundu bearko dio
etxera sartu artian.

5. Modu askotan ditu arduak
azaltzen sentimentuak,
asko edan da ondorenean
ez dira lenagokuak.
Zabarkeria ugari eta
arren ondorenekuak:
apustu-lanak desafioak,
destitxak eta bertsuak.

6. Dirua pranko ematen dio
ardo neurrigabeari,
etxian berriz pena aundia
andreaki edo amari.
Bildurrez daude noiz azalduko
gizon tabernari ori,
ekartzen baitu gaxo aientzat
ondoren txarra ugari.

7. «Gabeko lanak egunaz lotsa»
dio esaera zarrak,
egia al dan gizon orretzek
berak aitortu dezala.
Auzokoakin asarre dago
ardua dala ta ez dala,
ejenplo orren ondorena da
arbola txarran ezpala.
8. Bizio ontan aurreratzean
gorputza beti makaldu,
interesa ta ondasun ona
danak alperrikan galdu,
konduta ona zikindu eta
etxe-pakea ondatu;
tristeagorik ez da posible
gauza au baño kontatu.
9. Onen guraso, andre, umiak
penatzen daude egitan,
aurtxoa berriz galdezka dabil:
«Amatxok zer du begitan?»
Apariari kontu egiñaz
barrendikan errietan,
gizon mozkorra etorri zaio
goizeko ordu bietan.

10. Atia jo ta balantzan sartu
sukaldiaren ertzera,
ume gaxuak jekitzen dira
aita zakarran otsera.
Oso goizago etorri zaigu
umore txarrez etxera,
eta borrero zarraren gisa
dijoa ama jotzera.

11. Onelan lotsa oso galdurik
maitasun ona ere bai,
ardo-putzuba ez baldin bada
beste lagunik ez du nai.
Astelena ta asteartia
igandiakin danak jai,
utsa litzake famili gabe
balego orain ezkongai.

12. Orra amabi bertsoan jarri
mozkorran pasadizua,
arduarekin kontuz ibilli
eta ez edan naikua.
Janan tartian ardo on pixkat
oso gaizki ez dijua,
bañan inñundik al badezute
utzi baso erdikua.

BERTSO BERRIAK MOXKORRARI JARRIAK

Emeretzi bertso auk, izenburu orrekin, *Juventud* aldizkarian agertu ziran.

Aldizkari orren orri-pare bat, Donosti'ko Oriamendi baserrian, Segundo Kalonje bertso-lariaren eskutik jaso genduan; berak bertso auk gordetzeko berezitako orri-parea, alegia.

Orri oietan ageri danez, *Juventud* aldizkari ori Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxak gerra aurrean argitaratzen zuan.

Bilduma osoa bertan ba ote duten galdetzera izanak gera. Bañan ezezkoa eman ziguten: ez omen dute ez osorik eta ez alerik.

Orregatik, ezin esango degu bertso auk zein egunetan azaldu ziran.

Izenordez firmatuta daude: *Kollome*. Azken bertsoak ere alaxe dio. Bañan izenorde ori noren estalgarri dan ez dakigu.

1. Guzti-guztiok entzun
Jainkoaren lanak:
abere ta egazti,
edari ta janak,
gari, arto ta masti,
sagar ta aranak,
gure mesederako
egin ditu danak.

2. Jaki ta edariak
guretzat egiñak,
neurrian artuta
dira atsegiñak,
moxkorrak berriz ditu
ondoren samiñak,
oiek ondo esaten
nere alegiñak.

3. Izugarriak dira
moxkorraren griñak,
orixek menderatzen
egin alegiñak;
bestela izaten dira
biramón jakiñak:
kopetean *iltzea*
ta buruko miñak.

4. Irri-barrez artuta
eskuan txopera,
ezpañak luzetuaz
darama abera;
ederki iraultzen du
zintzurrian bera,
azkeneko kondarrak
botiaz lurrera.

5. Ardotegian dago
egunik geiena,
txopera bat edanez
bestien urrena;
iñola ezin asez
urdall ta barrena,
itz totalakin dio:
«Bete amargarrena!»

6. Balantzaka dijoa
ezker ta eskubi,
bat dagoan lekuan
ikusten ditu bi;
gerrikoa zintzilik,
altxa ta erori,
orrelako moxkorrak
pailazo diruri.

7. Erakusle on batek (1)
aspaldi ziona:
Umien aziera
nola izan ona,
moxkortzen dana bada
etxeko gizona?
Okerragoa berriz
jazten badu gona.
8. Gizonaren doairik
bikain ta onena,
Jaungoikoak emanda
duan adimena.
Orixen ondatzen du
moxkorrak aurrena,
aberiakin berdin
geldituz urrena.
9. Edale ta zoroak
dabiltz bide batez,
Euskalerrian beintzat
amaikaren kaltez;
ardandegiak nunai
egunez ta gabez...
gero ta gero geigo,
nik uste detanez.

(1) *Juventud* aldizkariak: *Erakuste*.

10. Edariak barrenen
sortzen duan sua,
moxkorrarentzat oi da
oso kaltetsua;
buruan uzten dio
illuna lausua,
galdu-aziaz laster
ezaguera osua.

11. Euskalerrian gabiltz
ardotan igari,
kalte asko egiñaz
geren buruari.
Bermeo, Zaldibar ta
Santa Ageda'ri
artu-azten diegu
zorua ugari.

12. Gauz asko izaten dira
gizonen kolkoan,
jakin bear ez diranak
beñere auzoan;
lotsak giltzatzen dizka
mingain ta aoan,
danak esango ditu
moxkortutakoan.

13. Azkar ikasten dira
moxkorraren griñak:
borroka ta errita,
esaera miñak,
birao zakarrak eta
ausardi zikiñak,
danak beriak ditu
ardo z irakiñak!
14. Ikusi izan ditut
nik presondegiak:
zikiñ-zikiñak dira
orlako tokiak,
armiarmak zintzilik
ta ustel usaiak;
antxen izaten dira
arratoien jaiak.
15. Presondegian dauden
burnizko ateak,
idikitzeko giltzak
dauzka alkarteak,
sartu-azten ditula
zurrutez beteak,
ezagutu ditzaten
edanen kalteak.

16. Lenoko euskaldunak
zabala bizkarra,
talo-artoak jan da
besoan indarra,
lepoa sendoa ta
lanean azkarra;
oraingo bi aña zan
orduko bakarra.
17. Gaurko seme-alabak
dirade kaxkarrak,
txorakerian erne,
lanerako txarrak,
gogoia ergel eta
gorputzez ttattarrak;
lan oiek egin ditu
ardo ta pattarrak.
18. Osasuna galduta
indarrak gutxitu,
sudur-muturra ubel (2),
begiak gorritu,
egarria geituta
txanponak urritu,
azken egun gorriak
moxkorrak oi ditu.

(2) *Juventud* aldizkariak: *ugel*.

19. Ankaz gora dijoaz
etxe ta erriak,
ondatu ditulako
edan geiegiak.
Agintzen dezutenak
idiki begiak,
Kollome'k esan ditu
bertsotan egiak.

Kollome.

Anaitasuna aldizkarian, 1950'eko Azaroan, sail ontako sei bertso agertu ziran: 2, 3, 4, 5, 6 eta 11'garrena. Aldaketa bakarra: 2/1: Jan eta edariak.

«GOIZEAN SARTU ETA...»

Amar bertso auk, Jose Lizaso'k jarriak dira. Ez, ordea, plazarik plaza bertso kantari dabillen Jose Lizaso azpeitiar bertsolari ezaguna. Beste bat, alegia, azpeitiarra berau ere, Lasao'ko Olaberri baserrikoa. Oker ez bagaude, beraren aotik jaso genituan, 1957'urteko udaran.

1. Goizean sartu eta
gaberdira arten,
taberna-zulotikan
ez gerade erten;
egun guzin zurrutan
baso aundi beten,
gorputzan mesedeik-pe
animaren kalten,
ola bizi gerade
oi ta amar urten.

2. Segi deiogun danok
geren bide onai,
errespetua artuaz
egin bear dan lanai;
askok ez degu nekatu,
beti bear degu jai;
naiz dirurik eman ez
aitari ta amai,
guk ditugunak uzten
dizkogu tabernai.

3. Segi deiogun gogor
ez gaitezen auldu,
gure gorputza onek
ainbat merezi du;
ardo orrek ez dauzka
amazazpi gradu,
ala ere gizona
menderatuko du,
ordun ark etxian zer
erakutsiko du?

4. Batzuk parra eingo dute,
beste batzuk negar,
gu ikusten gaitunak
zerbait egin bear;
geren buruak ustez
egiñikan edar,
emen gabiltz jaietan
oiua ta dear,
gazte galduen gisan
kalietan zear.

5. Penaz beterik dago
gure ama biguña,
gu azten orain arte
jardun da alegiña;
ta orain eskau digunen
zerbaiten ordaiña,
bueltan eman diot
arrazoi bikaiña:
«Neuretzat e ez ditut
ardotako aiña».

6. Esango dizut zer dan
mozkorran kontua:
sarri maldiziyua
ta arrazoi tontua,
berdekeria eta
izkera gaiztua,
lan eiteko gorputzen
palta talentua;
ori da gaztiantzat
atarramentua.

7. Oitura baldin bazu,
gazte, mozkortzeko,
eta lagun txarrakin
iñoiz juntatzeko,
maldiziyo batzuek
iñoiz botatzeko,
tabernatikan nekez
erretiratzeko,
orixe naikua da
anima galtzeko.

8. Bide onari segi,
txarretikan alde,
bestela izugarritzko
arriskuan gaude;
Jainkuak eite'igunen
zerutikan galde:
«Laister zu neregana
etortzeko zaude»,
orduan gure animak
nola ote daude?
9. Beti zabalik dago
elizako atia,
beso zabaldurik an
Jaungoiko maitia,
eta gure anima
pekatuz betia;
gazte sasoiko zaude,
damutu zaitia,
gero nai baldin bazu
zerura joatia.
10. Ara mozkorran kontuk
esan nik itz biyan,
eranak guretzako
zer gauz dakarzukiyan;
zintzo saia gaitezen
gabiltzan tokiyan,
errespetua izan
bizitza guztiyan,
gero sartu gaitezen
zeruko gloriyan.

ATE BIGUN BATERI

Bertso auek, orain emeretzi bat urte jaso genituan, Donostia'ko kaiean, mariñel zar baten aotik, Fermin Imaz bertsolariaren liburua prestatzen ari giñala.

Mariñel ori, Inazio Carril, Luis Carril famatuaren semea, oker ez bagaude beintzat. Luis ori, 1890'an ondarrutarren kontra estropada irabazi zuan donostiar treñeruaren patroia.

Bertso auek ez dira bein ere argitaratu. Olakorik egillearen burutik pasa ere ez. Lagun bati broma pixka bat eman nai eta bertsoak jarri, neurriagatik-eta kezka aundirik gabe.

Bañan bertsolaritzaren alderdi bat orixe da, ain zuzen: lagun arterako bertsoak. Olako zenbat eta zenbat jarri eta kantatu izan dan, naiz-eta silaba geiegiz doñua era gabe beartu, Jainkoak bakarrik daki.

Beste zerbait ere erakusten digute bertso auek: Donosti'ko parte zarreko lagun-alkarte edo soziedade askoren umorea eta euskal giroa.

1. Dozen erdi bat bertso
egin dizkat jarri
Kleto Manterola jauna
nere lagunari;
aindu zigun ate bat jateko
ta egin zun ekarri,
bañan gustoko afayik etzion eman
bere lagunari.

2. Artsaldeko ordu biyetan
kazuelian sartu,
ura ezin egiñik ikatz guziyak
egin ziran aitu;
alaz guztiyaz ere
bate etzan samurtu,
samurtu biarrian
egin zan gogortu.

3. Kazuelatik aterata
maiaren gañian,
Mariak ekin zuen
berakin lanian,
kutxillo ta aizkorakin juaz
ebaki eziñian,
tristura ederra zeguan
gure barrenian.

4. Abuan mokadua artuta jaten
etzeguan errez,
«Au izugarri gogorra zio
—alkarri esanez—,
seguru asko Mariak
egin dik aldrebek».
An zeuden guziok orduan
asi ziran farrez.

5. Farrez lertu biarrik
malkua jariyo,
gure istoriko ate ori
zalako meriyo;
Kleto ixkin batian
an zeguan seriyo,
esanaz: «Aterik ez diat
ekarriko geyo».

6. Alaz guztiyaz ere jaten
gogotikan saia,
naiz atea egon arren
izugarri zalla;
nola larunbata zan,
urrengo egunian jaia,
atearekin egin zun
bigarren afaya.

7. Orra, jaunak, esan
bertatik egiya,
onekin bukatzen det
atearen istoriya;
afari ori izandu degu
goguangarriya,
atekin eta erariakin
bukatu zan afariya.

ESNEDUN BATERI

Beste sei bertso auek ere, aurreko saillaren egillèak paratuak dira: Donostia'ko Inazio Carril orrek berak alegia; eta jaso ere beraren aotik egin genituan.

Esnezale bati jarritako bertsoak dira, broma pixka bat jartzearren.

Bertso paratzeari zergatik ekiten dion, azken bertsoak esaten digu: bertso batzuk agindu dizkio Inazio orrek esnezale orri eta itza bete egiten du.

Silaba geiegiz-eta, oso neurri zabala ta lasaia dute bertso auek. Eta beste akats batzuk ere badituzte, bertso onak izateko. Ala ere zergatik argitaratzen ditugun, galdera orri lengo saillaren aurretik erantzuna eman diogula uste degu.

Esnea ere jan-edanetan sartzen baita, bertso-sail oni ere liburu ontan leku eman bear ziztaion.

1. Dozen erdi bat bertso
egin dizkat jarri,
kaiera etortzen dan
esnedun bateri;
esnia ekartzen du
danentzat ugari,
eskerrak eman gantzake
emakume orreri.

2. Esnedun ori degu
oso salerosa,
gañera danentzat esnia
egiten du osa;
eztakit nungoa dan
Andoain ô Tolosa,
ikusten degunian datorrela
artzen degu poza.

3. Goizeko beatzitako
asten da ojuka,
Jaunai graziyak eztarri
ederra badauka;
zerbait esan eta farrez
asten da algaraka,
orren gibelak aje
askorik eztauka.

4. Malezi pixkat badu
duben edadian:
marmita irikia ekartzen du
eudia ai dunian;
seguru asko ura gelditzen da
esnien gañian,
gero txantxillarekin
aitzen da eraiñian.

5. Gauz oiek nola neronek
dituten ikusi,
egiya esan gabe
ezin leike utzi;
martingala pixkat ere
egin dezu ikasi,
bestela mundu onetan
ezin leike bizi.

6. Orra nik agindua
ein dizut ordaindu,
aindutako bertso abek
bear dituzu jarraitu;
jarraitu eta gero
gogoan ondo artu,
gaizki baldin badaude
faborez barkatu.

LAGUN ARTEAN EGINDAKO SAGARDUAREN GERTAERAK

Onen aurreko bi bertso-saillengatik esanak, berdin balio dute, dudarik gabe, onako bertsoentzat ere.

Egilleak argitaratu-asmorik batere gabe jarri zituala alegia, lagun arteko gertaera bat lagun artean kantatzeko, umore pixka bat jarri beste pentsamenturik gabe.

Eta guk orain liburu ontan agertzen baditugu, garai batean lagun-taldeetan zer giro izaten zan erakustearren egiten degula.

Gisa ontako bertsoak, len esan bezela, bertsoaritzaren alderdi edo eremu baten berri ematen baitigute.

Eskuz idatzita arkitu genituan bertso auek, Timoteo Adurriaga zanaren kuadernoan, Tolosa'n, bertako gertaera ere baita.

1. Zortziko batzubetan
guaz agertzera,
gure lagun artean
pasatubak dira,
kontatu bear degu
geren gertaera,
jendiak jakin dezan
gure asmo ederra.

2. Egun batez pensatu
lagunen artean
sagardua egitea
guztiyon artean,
sagastira juanda
igande batean,
eta danak ekarri
bizkarrak gañean.

3. Sagarrak ekarrita
nun jorikan etzan,
bañan onetarako
arkaitza bat bazan,
ederki garbiturik
Oriyako errekan,
guretzako makina
auxe izandu zan.

4. Amabost lagun juntaturik
geren sagardoteriyan,
bankettxo bat egin genduben
Jaungoikoaren graziyan,
alako bromik ez degu pasa
geren denbora guziyan.

5. Atsaldia ala pasata
urrengo egunian
ia zein egongo zan
animo txarrian;
oso gogor eraso
genduben lanian,
txarragorik badago
lurraren gañian.

6. Biba tolosar gazte,
biba gure kuadrilla,
urte askuan ondo
konserba dedilla;
sagardua egiten
gerade abillak,
eta edaten gera
gutziz egokiyak.

ZENBAIT BERTSO

Gai geienetan bezela, jai-edanaren gai ontan ere badira, guregana osorik iritxi ez diran beste sail batzuk ere. Batean bertso bakarra, bestean bi bertso eta orrela.

Olako bertsoak emen bilduko ditugu orain, alkarren segidan jarrita.

Lenengo au Astigarraga'n jaso genduan, Domingo San Sebastian *Txadonzaia* zanaren aotik:

Lau t'erdiyatik bostak bitarte
atera giñan etxetik,
uste orretan ez giñaden joan
Errenteri'ra Lezo'tik;
arraia gaizki maniatuta,
urdaiak arrak bestetik,
Santa Kurutzek libra gaitzala
usaia duen gaitzetik.

* * * * *

Beste bertso au, bederatzi puntukoa, Erren-
teri'ko Pello Zabaleta bertsolaria zanaren pape-
retan azaldu zan, onako argibide au alboan
duala: «Aspaldiko bertsoa».

Lagun, kalte aundiyak
ditu erariyak,
ordenaren kontrako
astakeriyak:
sudurra luzatu ta
gorritu begiyak,
errezelo txarrian
tente belarriyak,
neketan gerriyak,
juntura elbarriyak,
beti egarriyak;
eale garbiyak,
oik dira ibillera
negargarriyak.

* * * * *

Beste au, Astigarraga'n jaso nuan, 1958 uda-
ran, bertako Domingo San Sebastian *Txadon-
zaia* zanaren aotik:

Tolosa'n etxe batian,
Errementari kalia,
tertulianuak juntatzen dira
guztiz umore onian.

Martin Fandango tinbolarekin,
kuidado, jaunak, arekin
tiro aundiyak botatzen ditu
ipurdi okerrarekin.

* * * * *

Beste au, Jose Elizondo zanaren paperetan
azaldua:

Ai zer aziyo egin nai zidan
Manuben andreak neri:
baso bat ardo atera eta
kobratu nai zizkidan bi.
Aberasteatik ote zabilta
lapurtzen pobre danari?
Toki onera etorri zera
txoro naizelakoan ni.

* * * * *

Bertso-pare au, berriz, Irura'n jaso, Bitor
Alkorta'ren aotik:

Atia *kox kox* jo nion eta
laixter iriki ziguten,
aber mozkor bat eramateko
astua utziko ziguten.

Prebeniturik zesto ta guzi
laixter ekarri ziguten,
aren biarra izan genduan
etxera êmango bagenduen.

Batek nai zuen bertan uztia
sasi tartian sartuta,
bestiak berriz putzura bota
arri koxkor bat lotuta.
Esan niyoen: «Galduba zio
euskaldunaren konduta,
obe diyagu etxera eraman
asto-zestuan sartuta».

* * * * *

Urrengo bertso eta doñu auek, Errenteri'ko
Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno ba-
tetik:

Sinista zazu zutzaz oroitu
eta gerala etorri,
bide guziyan ori esaten
aritu gera alkarri;
eta gaur gero antza emana
egongo zera zedorri,
baxo bana atera zazu
penaren konsolagarri.

The image shows a musical score for guitar, written in 3/4 time and a key signature of one flat (B-flat). The score consists of two systems of staves. The first system has three staves: the top staff contains the melody, and the two lower staves provide a harmonic accompaniment. The second system has four staves, with the top staff continuing the melody and the three lower staves providing a more complex accompaniment with various rhythmic patterns and chords. The piece concludes with a double bar line.

Bertso au, Iparragirre'ren *Gitarra zartxo bat*
det doñuarekin kantatu bear dana, Errenteri'ko

Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno baretik:

Menditik eldu gera
deituta errira,
esanez eman bear
diyogula jira.
eta sagardo ona
saltzen dan tokira,
gaur lasai erateko
ez gaude kupira.

* * * * *

Beste bertso au, toki beretik artua: Juan Zabaleta bertsolari zanaren kuaderno ortatik:

—Josetxo Lanberriko,
zer dezu negarrez?
—Amak tabernarako
dirurik eman ez.
Artua *poco-poco*,
kalabaza jaki,
gu nola bizi geran
Jaungoikuak daki.

* * * * *

Bertso eta doñu auek ere, Errenteri'ko Juan Zabaleta'ren kuadernotik:

Ez dute, ez ekarriko
Naparrua'tikan,
ni mozkortuko nauen
ardo-klaserikan;
edozeñek bezela
eran gogotikan,
alare suelto ari
kantuzko platikan.

The image shows a musical score for the song. It consists of eight staves of music. The first staff is a treble clef with a key signature of one flat (B-flat) and a 3/8 time signature. The melody is written in a simple, folk-like style. The subsequent staves are bass clefs, providing a harmonic accompaniment. The music is written in a traditional notation style with stems, beams, and note heads. The overall mood is simple and traditional.

Beste bertso au, Aldako baserrian jaso da.
Bañan baserri ori zein erritan dagoan, ez gen-
duan idatzi:

Nere amets goxua
nai duenak jakin:
lau legoi kazuelan
zezenarekin,
iriyá adar ta guzti
manduen perrakin,
ganbelu t'elefante
tigre ta artzakin,
balia atunakin,
kokolidro ta putre
arrano beltzakin;
kazuelkada polita
sei milla ogirekin.

* * * * *

Bertso-pare au, Jose Ariztimuño, *Aitzol* za-
naren bildumatik:

Aizazu, Txiki,
aizazu, maite:
nondikan bera dago
Portugalete?
Portugalete,
vino clarete,
erango nuke
baso bat bete.

Baso txikiya baño
aundiya naiago,
egunian baño
gabian naiago.
Erango nuke bañoñ
ez det erango,
tabernari zarrekin
aserre nago.

* * * * *

Lau bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zaren bilduman arkitu ditugu, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanak Asteasu'tik bialdutako sortan:

Tabernan sartu eta
nei barrena oztu,
oraingo edariyak
indarrikan eztu (1);
nunbait ardua egiten
Naparrua'n aztu,
onera ekarrita
urarekin nastu,
kulparik ez dubenik
ez beintzat zapuztu (2).

(1) Loinaz-Otaño'k onela idatzi zuan: *udarrikan eztu*. Bañan dudarik ez, *indarrikan eztu* bear duala.

(2) Onen antzeko bertsoa badu Antonio Berridi bertsolariak. Ikus: *Auspoa* 146, 69 orri-aldean.

Lenago kuartillo bat
guk asko genduban,
barrena bero-bero
jartzen zan orduban;
orain ez sentidurik
esan dan moduban,
ederki bajatubak
dauzkate graduban,
komertzianti oikin
orra zer daguan.

Bart etxera jua nitzan
amar t'erdiyetan,
jateko ezer ez ta
andria erriyetan;
gosariya nolabait,
bazkaia diyetan,
baterako eskax dana
eman dit biyetan.

Allegatu baziñan
bart gure etxian,
burruntzaliya sartuta
bi baba eltzian;
besterik izan ez ta
komeriyak zian,
aietatik onena
andriak jan zian (3).

* * * * *

(3) Bertso au, onela arkitu degu Tolosa'ko Estanislao Urruzola *Uxola*'ren kuaderno batean:

Bart allegatu baziñan
zu nere etxian,

Bertso au ere toki beretik: Tolosa'ko *Uxola'*
ren kuadernotik:

Aurten urte ona da ta
txakoliña merke,
Azpeiti'ko neskatxak
ezkondu nai dute.
Ezkondu nai dute ta
nun dute dotia?
Mantalaren azpian
botilla betia.

* * * * *

Bertso pare au, Oiartzun'en jaso nuan,
Ugaldetxo'ko Larria baserrian, Patxi Labandi-
bar zanak emandako orri batean, eskuz idatzita:

Zenbait trabaju badu
gizonak munduan,
bizi bada andre txar
mozkorren onduan,
sarri ez dakiela
burua nun duan;
gu ere bizi gera
al degun moduan.

zer janarikan ez da
komeriyak zian;
burruntzalikin billaka
bi baba eltzian,
aietatik onena
andriak jan zian.

Andra Mari guriak
orduak-orduak
pentsamentua dauka
jarria arduan,
illuntasun triste bat
sarritan buruan;
mediku gabe daki
ark zer biar duan.

* * * * *

Beste bertso pare au, Tolosa'ko Estanislao
Urruzola *Uxola*'ren kuaderno batetik:

Nik ikusi nituan
San Juan gabean
Txomin eta Bartolo
tabernako atean;
ormia zalakoan
batak bestiari
txix-txix egin zion, *xar-xar*,
praketan alkarri.

Beste bat an zegoan
sukalde ondoan,
il antzo ipiñirik
sureko zuloan;
pipeari tiraka
matrallak puzturik,
suak erreko eban
egon bazan surik.

* * * * *

Bertso au naiko zarra izango da. Aita Jose Inazio Arana zanak (1838-1896) idatzi eta argitarara eman gabeko *Arte métrica bascongada o tratado analítico de la versificación euskara* idazlanean arkitu degu:

Ale goxoak ere
eldu gabetanik,
gogoz jan da gaitz egiñ
ikusten ditut nik;
dala erre, egosi,
orobat gordiñik,
alako janariak
ez dezake onik.

* * * * *

Bertso au *Euzkadi* egunkarian arkitu degu, 1934-III-7'ko zenbakian, Lekeitio'tik bialduta-ko eta *Txiparra* izenordeaz firmatutako idazlan batean:

Asi Tala puntatik
Eskolape'raño
ezta aurkitzen besterik
tabernia baño.
Nor ezta mozkortuko
ainbat tabernakin?
Baita islako akerra
edaten baleki.

* * * * *

Bertso au, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bildumatik, Bilbo'ko M. Ziarzolo'k, 1936 urtean, *Abeletxeren kanta-sorta* izenarekin, bialdua:

Egon gura dabenak
umore onian,
etorri tabernara
geu gagozenian;
eta poztutzen ezpada,
ai zure gibela (*bis*)
edo dago gaxorik
edo da ustela.

* * * * *

Beste au ere, *Aitzol* zanaren bildumatik, 1932 urtean, Plazentzi'ko Jerardo Ezenarro *Urzelai*'k bialdua:

Tabernatik tabernâ
zurrutlari bat or
omen dabil utziyaz
erai guziyak zor;
eta asten bazaio
diru eske iñor,
erantzuten omen du:
—*No entender, señor.*

* * * * *

Aitzol'en bildumatik bertso luze au ere. Ez dakit zer doñu-motarekin kantatuko dan. Izenburua onela du: *Brindis éuskaro. Miscelánea* izeneko kuadernoan arkitu genduan:

Noek asmatu zuan
zumoaren, zumoaren
gozoa,
zuen zorionerako
edatera, edatera
nijoa.

Pozgarri
beti, beti, beti, beti
da neurrizko edaria,
bai noski,
elkar maite izateko
zerutikan etorria.
Biotza poz-pozik
paratzen zait neri,
edan ezkeroztandik
kopatxoren bat;
zergatikan ez dan
gauza oberikan
ardoa baizikan
gizonarentzat.
Agur, jaunak:
gauza oberikan
ardoa baizikan
gizonarentzat.


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).

24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaa-rra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).

- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria. (*Aitua*).
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).

112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Uste ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).



AUSPOA
LIBURUTEGIA